


ANTONIO ZAVALA



NESSA-MUTILLEN
ARTEKO BERTSOAK

**NESKA-MUTILLEN
ARTEKO BERTSOAK**

AUSPOA LIBURUTEGIA

186

Auspoa Liburutegia
(EDITORIAL AUSPOA)

Plaza Santa María, 2 – Tolosa, Gipuzkoa
Tel. (943) 67 12 82

ANTONIO ZAVALA

**NESKA-MUTILLEN
ARTEKO BERTSOAK**

AUSPOA LIBURUTEGIA
1985

© Auspoa Liburutegia (Tolosa – Gipuzkoa)
Fotokonposatzaille: LENTE, Estella (Navarra)
Inprimatzaille: Lizarra, S. L., Estella (Navarra)
Depósito Legal: NA.: 1.545-1985
ISBN: 84-7158-132-9

ARKIBIDEA

Itzaurrea	9
(1850) Bertso Berriak: «Publikatzera noa bertsoak berriak...»	11
Bertso Berriak: «Kantak ateratzeko ba- daukat bidia...»	19
Bertso Berriak: «Irabazbide ona dirade ekarri...»	25
Bertso Berriak: «... 'en zabaldu da kan- ta bat berria...»	31
«Kantatzera nijoa zelebrequeriak...»	41
Bertso Berriak Ernani'ko bi neskatxa gazteri jarriak: «Bertso bi paratzeko obli- gatu naute...»	49
Bertso Berriak Toledo'k jarriak Mari- Jiraldari: «Zu onratzera, Mari Peluka, nator gaur zure aurrera...»	55
Bertso Berriak Manuel Arrizabalaga'k jarriak: «Bertso bi paratzeko artu det idea...»	61
Mirabe gazte baten orgulluari: «Bertso polit batzubek nua kantatzera...»	69
Bertso Berriak: «Bertso berri batzuek.....' raiño...»	75

«Lau lagun tabernatik giñaden atera...».	81
Bertso Berriak neska gazte batzueri jarriak: «Bertso berri batzuek neska batzuentzat...»	87
Bertso Berriak neskatxa bateri jarriak 1909'garren urtean: «Bertso berriyak jartzera nua ixillik eziñ egonta...»	91
Dama gazte batentzat: «Bertso berri batzuek dudarikan gabe...»	97
Bertso Berriak: «Dozenatxo bat bertso berriak nai nituzke atera...»	101
Bertso Berriak gaur ikusten diran dama politari: «Bertso batzuek kantatutzera orain nuade abiyan...»	107
Bertso Berriak Lezo'ko neskatxa batzueri jarriak: «Bertso berri batzuek nai nituzke jarri...»	113
Bertso Berriak mutill gazte baztueri jarriak: «Kantak jartzera guaz Lezo'ko gaztiak...»	119
Bertso Berriyak: «Bertso berri batzuek nai nituzke jarri...»	125
«Naranjaren gisako kolore oiekin...»	131
Bertso Berriyak: «Bertsuak jarri beitut.....'ko partian...»	137
Bertso Berriyak: «.....'go fonda bateko iru neskatxaren fama...»	143
Bertso Berriyak: «Ara Paris'tikan aurtent notizi berriya...»	155
Bertso Berriak: «Bertso berriyak jartzeko artu nuen itza...»	163

ITZAURREA

Mutil neska-zaleak, eta neska mutil-zaleak ere berdin, anak ariñak dituala esaten du kanta zaar batek.

Anak ez-ezik, mingaiña ere bai. Gaur irakurleari eskeintzen diogun liburu au izango da testigu. Izenburuak aditzera ematen duanez, neska-mutillen arteko bertsoekin osatua baita.

Atso-agure batzuengatik onela dio beste kanta zaar batek:

Alkarrenak dira ta
konponduko dira.

Baiña neska-mutillak, alkarrentzako izanik ere, ez dira beti ondoegi konpondu. Liburu ontako zenbait bertso-saillek ala erakutsiko digute.

Dana dala, bertso auek ere gure erri-literaturaren beste puskatxo bat dira, eta etzan gauza egokia illunpean egotea.

Danak edo geienak, egillearen izenik gabeko bertsoak dira. Egillearen izena dutenak ere badira gai ontaz. Baiña oiek beren aitaren liburuan agertuak ditugu edo aldan azkarren agertuko ditugu.

Gauza bat nabarmen ikusten da liburu ontan: askoz geiago dirala mutillak neskai jarritako bertsoak, neskak mutillai jarritakoak baiña. Onek zer esan nai duan garbi dago: Euskalerrian ere, emazkumezkoa baztertua bizi izan dala; mendean alegia, gizonezkoa baiña eskubide gutxiagorekin.

Erri edo toki baten argazkiaz baliatzen gera gure liburu auen azala pixka bat itxuratzeko.

Bertso-sail auetan geiena aitatzen dan erria bera izanik, gaurko ontan Donosti'ko *grabado* edo marrazki bat aukeratu degu, J. Mañé y Flaquer katalan idazlearen *El Oasis. Viaje al País de los Fueros* liburutik artuta; 1836 urteko Donostia agertzen du.

«On deigula» esan oi da bazkari bati asiera ematerakoan. Era berean, liburu onen atarian, bertso auek atsegin izan ditzala opa diogu irakurleari.

A. Z.

(1850)
BERTSO BERRIAK

1/ Publikatzera noa
bertsoak berriak,
gustatzen diranentzat
konsolagarriak,
.....'k
ordañez jarriak,
artu dizkirelako
len neri neurriak.

2/ Neri farra egiten
iru dama gazte,
ezin geiagoraño
burlatzen nazute;
ni desondratutzea
dago zuen juste,
besterik iñun danik
eztezute uste.

3/ Egitekoa franko
badarabiltzute,
eskandaloa franko
ipiñi dezute;
arrazoi gutxirekin
ainbeste dispute,
kristabak diranikan
pensatzen ez tute.

4/ 'ko
da berez jostuna
.....
du bere laguna;
.....
da irugarrena,
au da ternidatea
osatu zakuna.

5/ Irurok oi zebiltzan
gure ondoreti,
naturalmente ere
burlatzeagati;
maite ninduen baña
ni ez biotzeti,
persona ezagutzen
degu obratati.

6/ Beti banerabilen
nik erreparoa,
nundik izango dedan
nere anparoa;
tratu txarra egiten
da errazagoa,
bizitza pasatuzten
degu zallagoa.

7/ Madariak eskatu
eta nik eman ez,
artatik aserratu,
ikusten diranez;
eztute begiratzen
amorio onez,
gorrotoan daude,
derizkiodanez.

8/ Eztirate billatzen
ezertan kauserik,
eztiet egin izan
kontrako gauzarik;
eztadukat kulparik
jaioa besterik,
lotsak artu litzake
personak gazterik.

9/ Despreziatu dute
lengo adiskidea,
desondrako bertsoak
jarri dizkidea;
utsa zan eman banu
neronek bidea,
ori da amatzea
Judasen legea.

10/ Ni desondratu eta
egin nai farra,
ez oi darabiltzute
egiteko txarra;
etzaie aditutzen
itz on bat bakarra,
onela konsolatzen
da deabru zarra.

11/ Dama oientzat asi
ez nadin ofensan,
.....
daukea defensan;
oien bildurrik ez tet
nai banitu esan,
Jainkoaren bildurra
bear degu izan.

- 12/ Ezaguera gutxi
daukazun neskatxa,
eztet agertu nai
projimoen tatxa;
senti izanagati
onorean mantxa,
ori okultatuta
bear degu altxa.
- 13/ Kulparik eztedala
naute ni burlatzen,
neronek berriz asko
det disimulatzen;
arrazoian ezker
gu igoatzen,¹
besteren gaitzarekin
ez naiz konsolatzen.
- 14/ Enkargatzen zaituztet,
aitak eta amak,
ondo kuidatzeko
orrelako damak;
asko balio dio
gazteari famak,
beretzat konprenditu
premia daukanak.

¹ Igoalatzen esan naiko du bearbada.

15/ Eskarmentatu, damak,
orrenbesterekin,
inkomodatu bage
berriz besterekin;
ezaguera falta da
zenbait gazterekin,
zerren arrotasuna
daukaten berekin.

16/ Denbora degun arte
orain adbertitu,
damak, biotzetikan
ondo konbertitu;
zer ikusirik gero
ez dedin arkitu,
obligazioaz guk
beagu kunplitu.

17/ 'k
ipiñi bertsoak,
gertatu diralako
alako kasoak;
ez sentitu, dama ta
aide, gurasoak,
neurrian erabili
itz eta pausoak.

18/ Ogia ordañetan
beti da pagatzen,
argatikan bertsoak
ditut nik paratzen;
arrazoiaren bidez
gera deklaritzen,
konbeni eztan itzik
eztet ateratzen.

19/ Ezagutu dezagun
nork bere lekuan,
demandan ibiltzeak
zer lanak dituan;
jendea jarri degu
guretzat kantuan,
eskarmentatu eta
bizitu kontuan.

20/ Pasadizoak daude
adieraziak,
eskarmentatutzeko
persona biziak;
lagundu dizagula
Jaunaren graziak,
erremediatzeko
delitu guziak.

Bertso-papera, *Vergaran: D. Jose Undiaren Moldizteguien, 1850 urtean argitara emana, eta Bonaparte'ren bilduman azaldua.*

Baita Paris'ko Liburutegi Nazionalean ere, D'Abbadie zanaren paperetan.

Urtearen argibide jakingarria, beraz, moldiztegiak ematen digu: 1850.

Bertso auen jartzalleari, edo enkargatzalleari, bertsoak jarri dizkiote; iru dama gaztek jarri ere. Ta berak, ordañetan, onako auek zabaltzen ditu.

Oi degunez, iñoren lotsak berritzeko asmotan ez gabiltzan ezkerro, giza-izen guztiak kendu egin ditugu, eta utsuneak puntuz idatzi.

BERTSO BERRIAK

1/ Kantak ateratzeko
badaukat bidia,
enpeñatzera nua
abilidadia;
neskatxa batek sartu
diran maldadia,
autan erabili nau
kulparik gabia.

2/ Dama gazte batekin
artu det auziya,
galdu dit gorputza ta
osasun guziya;
goguan zerabilen
bere maleziya,
ziñetan azaldu da
txantxetan asiya.

- 3/ Amaren sabeletik
jaio bezela ni
naguela esango
diyot edozeñi;
errondan zabiltzala
bildu dezun ori,
seguru daukazu ta
ez eman iñori.
- 4/ Bere majuarekin
gañera bi galai,
oiek irurak eta
geiago ere bai;
gurutze batengana
orrenbeste etsai,
oraiñ besteren karga
neri erantsi nai.
- 5/ Uda berriyan zuen
arbolak sasoia,
tenperamentu txarrak
eman du pozoia;
partia baderala
orren arrazoia,
neri bota nayian
bere kargazoia.

6/ Eztet parterik izan
orrekin tratuan,
errondan ebilli da
nai duen lekuan;
gabeko amabiyak
askotan kanpuan,
neregatik libre da
oraindañokuan.

7/ Emakume batentzat
klaserik txarrena,
gau erdiyan etxera
kanpotik barrena;
neregatik esan du
berak nai duena,
maleziyan esnatzen
lotan dagueña.

8/ Justua izandu naiz
nere egunetan,
tranpiyarik gabia
artu-emanetan;
kantari nago bañan
biotza penetan,
autan erabilliya
orlako lanetan.

- 9/ Zenbaitek esango du
neregatik gaizki,
batenak aditzia ¹
eztutela aski;
berak ziertuena
jakingo du noski,
allegatu diranak
sekretuan dauzki.
- 10/ Etxiaren atzetik
gaubian poliki
gustoko mutillakin
etortzen badaki;
akonpañatu dute
nik bañan obeki,
atiak esaiñ luke
izketan baleki.²
- 11/ Etxiaren atzetik
leio bat ixilla,
kanpotik irikitzen
zizon maratilla;
atzendu zaionian
lengo kuadrilla,
oraiñ nigana dator
inozente billa.

¹ Bertso-paperak: *batenac aitzia*.

² Bertso-paperak: *izqueatan balegui*.

- 12/ Bere tatzak besteri
nai diyo azaldu,
pakian dagueña
maleziyan saldu;
autan erabiltzia
ongi egin al du?
Neri kulparik gabe
kreditua galdu.
- 13/ Eztaukat pekaturik
zurekiñ orretan,
itzez eta deseoz,
aiñ gutxi obretan;
tranposa bat zerala
esango det bertan,
autan erabilliya
naukazu sobretan.
- 14/ Orra bertso berriyak
ondo mereziyak,
milla eskumuñ eta
gañera graziyak;
ikasi ditzatela
euskaldun guztiyak
nola izandu diran
gure desgraziyak.

Bertso auek, *Vergara: Francisco Maria Machain-en moldizteguian* argitaratu ziran paperetan. Ale bat, Chicago'ko *New Library'n* azaldu da, Bonaparte'ren bilduman.

Urterik ez da esaten. Baiña naiko paper zaarra da. Eun urte baiño geiago izango ditu.

Egillearen izenik ere ez da ageri. Baiña bertso onak dira; amargarren bertsoan *esaiñ* dio, eta ez *esango*; eta Bergara'ko moldiztegi ortan beste paperik ere argitaratu zuan Xenpelarrek. Arenak izango ote dira, beraz, bertso auek?

Are geiago: zazpigarren bertsoak onela dio: «maleziyan esnatzen/lotan dagueña». Esaldi orrek antza badu Xenpelarren beste arekin: «...lotan daudenak esnatzen, / etzait neri gustatzen / maliziyan jostatzen / iñorekin ibiltzia...» (Ikus: «Iya guriak egin du», bigarren bertsoan, *Auspoa*, 88-89-90, 410 orri-aldean).

BERTSO BERRIAK

- 1/ Irabazbide ona
dirade ekarri,
iñork jakin nai badu
kasuaren berri,
dozen erdi bat bertso
nai nituzke jarri,
dama gazte birentzat
eskarmentagarri.

- 2/ Neskaxa bi jua n dira
lgeldo'ra aurten,
kalian eztutenak
ardorik eraten;
oien pasadizuak
asi naiz esaten,
berriz engañiyorik
egiñ ez dezaten.

3/ Mingaiñ enbasteruak
jolasian trebe,
maleziyan egiñ nai
majuaren jabe:
etzaiela gustatzen
ardorik batere,
aren faltan lepua
kendu biar ta're.

4/ Zer nai zuten galdetu
niyen beriala,
pontxa eran ezkeru
ederki zeudela;
batek erantzun ziran
ziñetan bezela,
oriyentzat ardua
benenua zala.

5/ San Pedro egunian
Igeldo'ko festa,
galai bana artuta
juan dira bi neska;
ardua eskeñi ta
kalian igeska,
iritxiko lukie ¹
zagiya trabeska.

¹ Oiartzun aldean *iritxiko*. Bestetan, berriz, Gipuzkoa'n beintzat, *iritxiko* edo *irentsiko*.

6/ Gezurra sinistatu
nuen korriente,
asko engañatzen da
ezagutu arte;
ordu gutxiren barren
marka egin dute,
tragatuko lukie
kantaro bat bete.

7/ Errotara joan dira
biaramonian,
asto bana artuta,
deskantsu onian;
leku disimuluan
jarri diranian,
iruna kuartillo ardo
zuten barrenian.

8/ Lau dozena sardiña,
amabi txitxarro,
liberdi banakuak
iru opill arro,
oriyezaz gañera
pitxar t'erdi ardo,
betetzen gaitzak dira
zenbait tripa-zorro.

- 9/ Ogiya ta txitxarro
orra erakutsi,
sardiñ berriak ziran
berrogei ta zortzi;
seina txiki eran ta
ezpañak igortzi,
ostatuan eztute
propinarik utzi.
- 10/ «Leku disimuluan
bagauden bi lagun,
ardo ederra zion,
geiago nai al dun?
Laugarren txopiñ ori
atera dezagun,
zeñek jakin bear diñ
zenbat eran degun?»
- 11/ Bestiak esan zion:
«Guazeman emendik,
zer egiñ degun iñork
jakin gabetanik;
aurki beste baso bat
erango diñat nik,
tabernak bazauden
birian oraindik.»

12/ Asto belarri motza
baten azienda,
karga arindu eta
kontentu omen da;
zakuak pagatu du
oien merienda,
iriña laga dute
ostatuan prenda.

13/ Orrenbeste komeri
Lasarte'ko jiran,
illunabar aldera
andik erretiran;
gelditzeko asmua
bazuten birian,
eztakit noiz etxera
allegatu diran.

14/ Mingaiñ ederrarekin
milla enbusteri,
ardorik etziraten
estimatu neri;
orra bertso berriyak
dama gazte biri,
gayian dagueña
konturatu beri.

Bertso-papera, *Vergara: Imp. de Francisco M. Machain* moldiztegian argitara eman, eta Bonaparte'ren bilduman agertua.

Leen ere esan degun bezela, Xenpela rrek jarritako zenbait bertso-sail, moldiztegi ortantxe inprentatu eta paperetan argitara tu ziran.

Bestetik, berriz, bertso auek badute, guk uste beintzat, Xenpelarren bertso gintzarekin zer ikusirik.

Arenak, beraz, bertso auek? Ditekenda da ori ere, noski. Baiña gauza segururik ezin jakin.

BERTSO BERRIAK

1/'en zabaldu da
kanta bat berria,
ez dakit nundik nora
duten ekarria,
guztia edo geiena
gezurrez jarria;
ordaña biraltzeko
daukat enbidia.

2/ Izandu da pandero
sinple baten kaso,
ekusi ez bazuen
obia zan askoz;
guri kantak paratzen
jardun dira gustoz,
ordaña aditzera
nai badue betoz.

3/ Biak serbitzeko zan
panderoa artu,
orduan etzitzaien
gaitzik gogoratu;
deskuiduan zaio
bati porrakatu,
bere erdi partia
bestiak kobratu.

4/ Inkomodatu dira
orduban neskatxak,
ia esan diteke
etzeudela gaitzak;
zañak luziak ditu
partiera motzak,
artatik sortu dira
familiar tatzak.

5/ Katak jarri dituzte
nai duten tokian,
orrelako gauzarik
guk ez ginakian;
ixillikan ibili
zaizkigu tranpian,
nekez oartu gera
gure parrokan.

6/ Neskatxa orrek ditu
beste anaia bi,
Jose Manuel deritza
aietan zarrenari;
nik ez neukan ezertan
batere lan ori,
esango det zer burla
egin didan niri.

7/ Tranpian esan ziran
fiñezan bezela
emakume oietan
zer ero zer bazala;
ura bere aldetik
saiatuko zala,
nik ere etxequak
sujeta nitzala.

8/ Ez nion bueltatu
arren kontra itzik,
unioko kontubak
gustatutzen zaizkit;
ez du okasiuak
enredua baizik,
baietz agindu nion
ala ere pozik.

9/ Nigandik baiezkoa
izan duanian,
etxera juana da
deskansu onian;
neronek aditu det
urrengo egunian
kantatzen ari zala
biaramonian.

10/ Nolako gurasuak
alako umiak,
onak eman dituzte
gure informiak;
oriek adituta
nik zer esan biat?
Len ere gure berri
badaki jendiak.

11/ Zuen auzo-laguna
Josefa Inazi,
telltupe batian
urte bian bizi;
jaten nabarmenago
zu baño ez naiz ni,
esan didazu baña
ez nuan merezi.

12/ Gogoan al dauzkatzu
leneko azañak?
Oiek erasan ditzu
eduki eziñak;
zuek neri esnia,
nik zuei gaztañak,
bost aldiz dantzatubak
dauzkatzu ezpañak.

13/ Lenago izandu naiz
mirabe leiala,
ondo egindakuan
bejondagirala;
baña eziñ aritu
beti ni ere ala,
oraiñ ezagun baita
alde egin nuala.

14/ Nerekin dezuela
zerbait enredua,
ama guria ere
errierterua;
ori bakarrik badu
bere enpleua,
famiarentzako
ai zer anparua!

15/ Erriertan badaki
.....'n atsuak,
konpondu izan ditu
bere altu-bajuak;
iñoiz faborezitu
zinduen gajuak,
billatu oi zitzuen
jateko artuak.

16/ Orain kontu oriek
atzenduak daude,
asi naizan ezkerro
esan biat au're:
disimulatziarren,
Justizira gabe,
diruba billatuta
baita pagatu're.

17/ Mari Antoni ere
sartu dezu kausan,
mutil-zalia dala
nai zenduke esan;
besterik alakorik
ez ote da izan?
Gazte asko oi dira
orrelako gisan.

18/ Ez baldin badakizu
au beste iraiñik,
nik ez det billatutzen
emen zer egiñik;
ollaiskorikan ere
sentitu ez det nik,
sasoian txutxurrutxu
jotzen ez duanik.

19/ Geiago're badira
aotan artubak,
kana batekin gera
guztiok neurtubak;
setituko duela
gero bildurtubak,
aditu det dirala
kanta borratubak.

20/ Gaizki itzegitea
entero erraz da,
ez balitz etorriko
geroko erresta;
baña bildur bear da,
ori dago festa,
min duanak emango
du errespuesta.

- 21/ Orretan asterako
pensatu biar da:
nik dedan asuntuan
kulpantia nor da?
Merezi duanari
emaiozu karga,
kulpa gabekoari
ixilikan larga.
- 22/ Orra ogei ta iru bertso
euskeraz publiko,
beti jolas onetan
ezin naiz ariko;
gutxiegi badira
dira etorriko,
aste bat gora-bera
ditugu jarriko.
- 23/ Badakizu nun gauden
semia ta aita,
etzaitugu utziko
ez degula naita;
geienian oi degu
onelako gaita,
inkazkintza bertan (*sic*)
ariñago baita.

Bertso-papera, *Tolosa, imprenta de Pedro Gurruchaga* moldiztegian argitara emana, eta Bonaparte'ren bilduman, Chicago'ko *New Library*'n arkitua.

Bertsoen ondotik, beste txeeetasun jakingarri auek ematen dira:

«Pueden imprimirse. Tolosa 27 de Octubre de 1864. Benito Gorostegui.

Garai artan ere zensura bai-baitzan. Andik lau urtera, 1868'ko matxinadak kendu zuan; Isabel II erregiña atzerrira bialdu zutenean, alegia.

Baimen-emate ori dala-ta, urtea ere adierazten zaigu. Bestela, ori ikasi gabe gelditu bearko genduke, bertsoak ez baitute esaten.

Onen aurretik beste bertso-sail bat jarri du norbaitek eta ordaiñak ematen zaizka. Ori garbi ageri da. Baiña alkarren artean zer ixtilu darabilkiten, illun xamar gelditzen da guretzat.

Lenengo eta amabostgarren bertsoetan utsune bat arkitu du irakurleak. Bi toki-izen zeuden or. Kendu egin ditugu. Bestela, bearbada, aiton-amonen lotsak billobetan berrituko lirake.

«KANTATZERA NIJOA ZELEBREKERIAK...»

1/ Kantatzera nijoa
zelebrekeriak,
damatxo batek berak
beretzat jarriak,
berri-berriak,
ez dira desonestak,
bai farragarriak.

2/ Ogei eta bat urte
daukat edadea,
amar urte serbitzen
nagon mirabea,
miserablea,
umazurtz inozenta ¹
jaberik gabea.

¹ Santesteban'en bilduman: *umazur*.

3/ Orain agertzen dira
nondik-nai jabeak,
katu zarraren gisa
gauza on zaleak,
arrantzaleak,
gazte inozentien
engañazaleak.

4/ Nere gazte lagunak
au gogoan artu:
garbitasun ederra
bear da konserbatu,
konsideratu,
murmurazioari
bidea trabatu.

Lau bertso auek, Santesteban'en *Aires Vascongados* kanta-bildumatik ditugu.

Doiñua, kanturako eta pianorako, bertan arkituko du irakurleak.

* * *

Ernani'ko Ramon Apaolaza zanaren bilduman, makinaz idatzita, sail ontako zortzi bertso arkitu ditut. Lenengo irurak, Santes-

teban'enean ere badaude. Baiña aldaketaz josita. Orregatik, oiek ere osorik agertzen ditugu. Onela diote:

- 1/ Kantatuzera nua
zelebrekeriyak,
neskatxa gazte batek
beretzat jarriyak,
berri-berriyak,
ez dirade lizunak,
bai parragarriyak.

- 2/ Ogei eta bat urte
daukat edadia,
amar urtez serbitzen
nagon mirabia,
doakabia,
gazte ume txitxontxa (*sic*)
jaberik gabia.

- 3/ Orain agertzen dira
nun-naitik jabiak,
katu zarraren gisa
aragi-zaliak,
arrantzaliak,
neskatx inozentien
engañatzaliak.

4/ Galai bat etorri zait
larri eta estu,
oieko baztarrian
egiteko leku,
zirri ta musu,
traje baten neurriya
nai zirala artu.

5/ Onian eziñ eta
gero gogorrian,
neurtu biar nindula
luze-laburrian
oiaren aurrian,
oriñalez jo nuben
kopet-ezurrian.

6/ Erruki nintzan eta
egiñ niyon kura,
etxian zan botika
gatza eta ura:
– Joxe Bentura,
ez geiago etorri
nere konbentura.

7/ – Egiñ badizut ere
zirri edo mirri,
nere kopet-ezurak
pagatu du ongi,
Joxepantoni,
jornalak artu eta
etxera nua ni.

8/ – Adi zazu, galaia,
bigarren aldiyan:
ez etorri nigana
gabaren erdiyan,
enbusteriyan,
ez da konpesiyorik
nere parrokiyan.

* * *

Azkue'k, bere *Cancionero popular vasco* bilduman, 31'garren zenbakian, bertso auek kantatzeko bi doiñu ditu.

Lenengoa, Getari'ko Balbina Berasaluzze'ri jaso. Baita ere 4, 5, 7 eta 6'garren bertsoak, orden orretan.

(Bertsoak zenbatgarren diran esateko, Ernani'ko Ramon Apaolaza'ren sailla artzen degu eredutzat, osoena bera da-ta).

Bigarrena, Lekeitio'n, Jose Luzio Etxeberria'ri jaso. Baita ere 4'garren bertsoa.

Azkue'k, ordea, zensura ezarri zien bertso auei. Ona zer dion:

«El texto original era demasiado subido de color para exponerlo a la luz pública. Quedan alterado el segundo y tercer verso de la primera estrofa, como también el tercero y cuarto de la segunda; permaneciendo casi intactas las dos últimas estrofas.»

Gauzak orrela izanik, ez du merezi al-daketak esatea.

Lekeitio'n eta seguru aski Jose Luzio Etxeberria orren aotik, beste bertso bat ere jaso zuan. Etzuan bere kanta-bilduman argitaratu. Baiñan orain beraren esku-idatzietan agertu da. Onela dio:

Tapakien azpitik
sarturik eskua,
gaiso nenguala ta
artu nai pultsua,
sinple txotxua,
Luziferren aldeko
aingeru gaiztua.

* * *

Beste zenbait tokitan ere arkitu ditugu bertso auek. Inprentaz bein ere ez, ordea. Beti eskuz edo makinaz idatzita. Oso luze joango litzake ta ez ditugu al-daketak jarriko. Baiña bai zeñek zein bertso dituan.

Irun'en jaio ta Plazentzi'n bizi izan zan Andres Ezenarro *Urzelai* zanak 1932 urtean *Aitzol* zanaren bildumarako bialduta: 4, 5 eta 6'garren bertsoak.

Donosti'ko Jose Elizondo'k, 1935 urtean *Aitzol* zanari bialduta: 4, 5, 8, 7 eta 6'garrenaren azken iru lerroak. Baita «Tapakien azpitik» asten dan beste ori ere.

Tolosa'ko Estanislao Urruzola *Uxola*'ren kuadernoan: 4, 5 eta 6'garrena.

Gernika'ko Julio Bareño jauna zanak, 1959 urteko Otsaillaren 25'an, bost bertso bialdu zizkidan: 4, 5, 6, 7 eta Azkue'k Lekeitio'n jasotako beste ori.

Oiartzun'go Jose Luis Lekuona *Lexoti* bertsolariari bertso auek jaso nizkion: 1, 4, 5, 6 eta 7'garren bertsoak.

Baita doiñua ere. Onako au:





BERTSO BERRIYAK
ERNANI'KO BI NESKATXA GAZTERI
JARRIYAK

- 1/ Bertso bi paratzeko
obligatu naute,
bi neskatxa afanosa
diran mediante;
baltsera jua gera
inmediatamete,
ez dirala ibilliko-ta
or utzi gaituzte.

- 2/ Esan bezala bi mutill
jua giñan baltsera,
ezetz esanda utzi
gaituzte atzera;
nunbait ez gera irixten
oieren klasera,
duda gabe oientzat
arlotiak gera.

3/ Ez dakigu zein diran
oien modukuak,
beintzat ez dira diña
gu bezelakuak;
oiek altura iyo nai
dituzte buruak,
kabituko ote dira
oieren lujuak?

4/ Lujua asko baña
interesa gutxi,
tamaña oietan orla
egiteko utzi;
ustez orlako gauzik
ez degu merezi,
argatikan bertsuak
jartzen gera asi.

5/ Zubek ori egitia
asko degu sentitu,
ustez asmu oietan
ez giñan abitu;
ezetzkua ori
zanian aditu,
guziya pasatuta
giñaren gelditu.

6/ Iñork ez digu egiñ
orrelakorikan,
oiek egin diguten
bezelakorikan;
askorengana juan
arren, oraiñdikan
iñork ez digu eman
orlako lotsikan.

7/ Utsa zan kontuba ori
orla pasa balitz
gero bi señorito
juan zaizkate berriz;
begiratzen genduban
makiña bat aldiz,
gozo asko zebiltzan
iya zoraturik.

8/ Egunaren izena
nai det señalatu;
erriko pesta-eguna
degu zelebratu;
sekulan orlakorik
ez degu pentsatu,
uste gabeko gauza
zaigula pasatu.

9/ Egun ortan izaten
da erromeriya,
Ama Birjiña eguna
goguangarriya;
oiek señoituaidi
bota arren begiya,
guretzako're ezta
faltako nobiya.

10/ Oiek kontentu dira
jantzi utsarekiñ,
botiñaz ta lebita
relojuarekiñ;
orrela apaindurik
dabilenarekiñ,
naiz boltsillubak izan
diru gutxirekiñ.

11/ Eziñ lezakezute
artu kargurikan,
ez degu deklaritzen
zuben izenikan;
bañan okerra egiñ
ezkeroztandikan,
azkar konprenditzen du
nork beregatikan.

12/ Konpadriyan kandela
dubena beretzat,
adituko dubala
iruritutzen zat;
gaizki egiña kalte
guziya zerentzat,
ez pentsatu batere
danikan guretzat.

13/ Orra pasadizuak
ederki itzegiñ,
despedidan ez badet
egiten utsegiñ;
esan degu nola dan
zubentzat atsegiñ,
ondo konpon zaitezte
señorituakiñ.

Amairu bertso auek, *Imp. Baroja San Sebastian* moldiztegian argitara emandako bertso-paper batetik ditugu.

Paper ori, Baroja'ren etxe ortan bertan, D. Joakin Muñoz Baroja zanaren eskutik, jaso genduan.

Bi mutil, baltsean bi neskatxakin egiteko asmoz joan dira; bañan ezezkoa jaso dute. Eta, minduta, bertso auek jarri edo jarri-arazi dituzte.

Bertso-paperaren izenburuak dionez, neskatzak ernaniarrak dira. Bañan beste argibiderik ez da ematen: ez neskatzen eta ez mutillen izenik; ezta ori gertatu dan erriarenik ere.

Bertsolaria ere ez dakigu nor dan. Bañan Beterri aldekoa dala ezagun du. Ango fonetismo guziak baititu.

BERTSO BERRIAK
TOLEDO'K JARRIAK
MARI-JIRALDARI

1/ Zu onratzera, Mari Peluka,
nator gaur zure aurrera,
zure mentajak adi ditzatzun
atoz zu nere urrera;
zori onian nonbait zerutik
etorri zihan lurrera,
bestela eziñ izan zindezken
emakume aih ederra.

2/ Zure mentajak nai det esaten
lenen burutik astia:
alderdi bata kalbua dezu,
ille gabia bestia;
ille gorrizko peluka batek
estaltzen dizu guztia,
berrogei ta bost urtekoantzat
oraiñdik zaude gaztia.

3/ Bekoki illun, begi okerrak,
sudur oso motz txatua,
ezpaiñ gaiñeko bizar oiekiñ
dirurizula katua;
biraldu ziñan ezkeroztikan
zedorren erretratua,
ari begira gau eta egun
ai nik daukadan tratua!

4/ Ao zabala agiñik gabe
palta dirala an ortzak,
guzien partez onratzen zaitu
kana erdiko okotzak;
matrall-ezurak dituzu berriz
labana beziñ zorrotzak,
zuri aitzaki dizun galaia
artuko dute zorotzat.

5/ Ezurak eta azalak dira
zugan dituzun guziak,
mamiyak nonbait ondo gordeta
jaietarako utziak;
jaian baraurik egoten zera

.....

.....

.....¹

¹ Bertso-papera puskatuta dago, eta zati au falta du.
Baita urrengo bertsoa oso-osorik ere.

6/
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

7/ Anka batetik erren zabilta
pauso egiñaz dolorez,
baña alare egiten dezu
alegiñ apaintzen lorez;
oiek orrela diralarikan
zoragarriya kolorez,
ezagutuko etzaitu iñork
moroa zeran edo ez.

8/ Zazpi urtian garbitu gabe
zure arpegi igarra,
ontza laurden bat badezu lori
ageri zaitzun ugarra;
garbitutzeko ekar itzatzu
jaboi, espatz ta ondarra,²
bada bestela izango dezu
lixiba baten bearra.

² Bearbada, *espatz* ori *espartzu* izan diteke.

9/ Erri guztiak daki zerala
guziz pizkorra lanian,
noiz-nai ere bai, baña geienbat
premiya dagoanian;
egun guzian berriketan ta
..... ondo gabian,³
baña bestela beti langille
gañerontzeko danian.

10/ Linajekoa zeralakoan
ai au pantasi-modua!
Aipatutzeko ere ez dakit
nola daukazun gogua:
aita aldetik ijitoa ta
amarenetik moroa,
aditzen dauden danak esango
dute zerala zoroa.

11/ Dudarik gabe izango ziñan
zu emakume ederra,
porro-salda ta sardiña zarrak
izan balute indarra;
baña aizeak gora ta bera,
atzetik tirri ta tarra,
zuri begira jarri ezker
nork ez du egingo farra?

³ Papera puskatuta dago emen ere.

12/ Ez beñ bakarrik baizik sarritan
egon izandu naiz dudan,
zuk sinistuko ote didazun
zuri zenbat nai dizudan;
zuga pentsatzen gau eta egun
naiz neguan ta naiz udan,
agur egiten dizut bai, baña
ez naiz aztuko sekulan.

Bertso-papera, *Eibar.- Imp... Carrero*,
Errenteri'ko Enrike Elizetxea zanaren bildu-
man.

Moldiztegi-izena ez da osorik irakur-
tzen.

Toledo dalako jartzalle ori, ez dakigu nor
zan.

BERTSO BERRIAK
MANUEL ARRIZABALAGA'K JARRIAK

- 1/ Bertso bi paratzeko
artu det idea,
izana naizelako
atzo itz-bidea;
zerbait esango naute
komeni ezpadira,
neskatxa oien kontubak
zelebriak dira.
- 2/ Bakoitzak biar ditu
sei zazpi nobiyo,
esaten dute: «Zuri
dizut amoriyo.»
Orduero or daude
agur da ariyo,
oien kontubak eztu
txanpon bat baliyo.

3/ Ikasiyak dauzkate
kaleko pausuak,
señale kejatubak
zeudela auzuak;
erortzen baida ere ¹
baida nork jasuak,
zer pensatzen ote du
oien gurasuak?

4/ Mantal zuriyarekin
besuan zestua,
danak ikasi zuten
oien pretestua;
batek dauka sarea,
bestiak errestua,
eztute ikusi biar
istillu gaiztua.

5/ Ez dirade guztiak
mantal zuri dunak,
tartian gutxi baña
badira illunak,
kontatzen dituztenak
gabak eta egunak;
orra zer maliziya
duan gonadunak.

¹ Bertso-paperak: *Edorten*.

6/ Asko ziran pozian
kontari alkarri:
«Etxe bat biar degu
geure kontu jarri;
ez gaitezen ibilli
beti farragarri,
abisatu lenagoko
ezagun zarrari.»

7/ Ez da emakumientzat
allegatzen dana,
gizonak ere baute
kulpa piska bana.
Zertan ukatzen dute
egindako lana?
Negarrez juanak baida
beren amagana.

8/ Kontu-artzalle onak
dauzkagu errivan,
oberikan ez dago
Españi guztiyan;
neskatxak egon arren
beren maleziyan,
akordatu ziraden
zerbaiten usayan.

- 9/ Udaran pasiora
txalupan jarrita,
somatuba zeukaten
funtziyo polita,
etxian euki arren
ama eta aita,
gosiak iya illian
txokoan jarrita.
- 10/ Kalian zebiltzanak
akordatu ziran
donzella oiek zer moduz
bizi ote ziran:
lanera juaten ziraja
zortziyak jotzian;
ar aundirik etzegen
oien biyotzian.
- 11/ Gu giñaden tokira
zabaldu zan boza,
kontrabanduan zala
itsasuan pasa;
Jesus, gau orretako
neskatza oien poza,
orra nolakua zan
oriyen konpartsa.

12/ Ikusiyak baziran
preso zetozeia,
isillik egon ziran
oi dana bezela;
ez zazute pentsatu
bromaz ai naizela,
laister eman ziyoten
ipordiya pala.

13/ Medikua pulsuak
artzeko bezela,
gizon azkarrak daude
pagatze'ituztela;
oiek ezagutu zuten
gaizki zebiltzala,
ez dira berriz juango
lenago bezela.

14/ Mutill gaztiak, egin
amak agindubak,
malizi asko dauka
oraingo mundubak;
garbitu al-bait ondo
etxe-ingurubak,
badira fabrikatik
jornala bildubak.

- 15/ Erritikan kanpora
asko irten gabe,
okerrenak daudela
neri esan gabe;
iñor egiten bada
olakuen jabe,
galtzak izango ditu
enfurrurik gabe.
- 16/ Polizoiak baituzte
metro bana altu,
oieri ipurdiya
zeñek arrapatu?
Ezkongai dauden danari
eiyozute kontu,
orrelako andrerik
ez dezatela artu.
- 17/ Polizoia orrela ta
illien jarrera,
neskatxa gaztientzat
ori da karrera;
ni arritzen naizena da
oien etorrera,
gezurra daiotela
ortzetan aurrera.

18/ «Maria, lagunagatik
zer pensatzen dezu?
Nik ezautzen ez zaituan
persona zera zu;
motibua zeñena dan ²
jakin nai badezu,
Manuelen etxera
etortzia dezu.»

19/ Urriyaren bosta da
señaladamente,
etxerako bidian
jarri zaizkit frente;
toriatzalle onak
egon biar dute,
dakitenak badira
esan nai badute.

20/ Orra ogei bertsorekin
lan guziyak utzi,
motibo danetara
ez dira iritxi;
iñork baldin baderitza
oriyeri gutxi,
atozte berriz ere
biyar edo etzi.

² Bertso-paperak: *motibuak*.

Bertso auek Donostia'n jaso genituan, *Manterola* liburu-dendaren nagusi Juan Arbelaz zanaren eskutik.

Bertso-paper bat da, *Donostiyan: Eusebio Lopez-en moldiztegui*an argitara emana.

Baiña oker bat dago or. Moldiztegi ori Tolosa'koa zan. Lenengo, Juan Inazio Mendizabal'en izena izan zuan, 1826 urte-tik 1840 urtera; urrena, *Mendizabal'en alarguna*'rena (1840-1877); irugarren, *Eusebio Lopez*'ena (1877-1900); eta azkenik *Lopez-Mendizabal*'ena (1900-1936).

Bide batez, beraz, bertsoetan urterik ageri ez bada ere, noiztsu jarriak diran ikasia degu.

Izenburuak egillearen izen-deiturak ematen dizkigu. Baiña ori beste berririk ez degu inondik ere jaso bertsolari orri buruz.

Bertsoen gaia lenengo bertsoak adierazten du: «neskatxa oien kontubak zelebriak dira». Baiña mutillentzat ere badago emen zer esana.

MIRABE GAZTE BATEN ORGULLUARI

1/ Bertso polit batzubek
nua kantatzera,
neskatxa baten pasa-
dizua esatera:
nola izandu duben
majozko aukera,
bañon guziyak utzi
ditu alde batera.

2/ Gauza txokantia da
iñon pasatzeko,
Donosti'ko jendia
eztago aztutzeko;
zazpi pretendiente
ez gaude aztutzeko,
nola izan dituben
orrek ezkontzeko.

3/ Primeroko majuak
oraindik du miña
ezkontzeko mandatu
dama orri egiña;
zer ofiziyo zuben
galdetu ta argiña,
esan zion: «Etzera
neretzako diña.»

4/ Juan zitzaion bigarren
pretenditzallia,
aguro egin zion
arri're galdia;
Mutillak esan zion:
«Zapatagillia.»
«Eztet nai, baizik nai det
ofiziyo obia.»

5/ Irugarrena juan zan
pretendentia,
arri're etzan aztu
galdia egitia:
la zer ofiziyo
zuben, ta sastia;
ura ere etzubela nai,
demontre trastia.

6/ Laugarrena're jua zan
pretendituzera
formalidadiakin
beraren etxera;
galdetu zion: «Zertan
enpleatzen zera?»
«Arotziyan.» «Ai, Jesus,
gustokua etzera.»

7/ Bostgarrena ere jua zan
neskatxa orrengana,
ustez esplikatzera
senti zuben dana;
arri (y) ere esan zion:
«Zer da zure lana?»
«Panaderua.» «Ai, ai,
gustatzen etzaitana.»

8/ Seigarrena ere jua zan
bere pretensioz,
azkar galdetu zion
arri're ofizioz;
pioia zala esan
ziona afizioz,
algaraz farrez asi
zaio desprezioz.

9/ Sei ofiziyo orrela
despreziatuta,
señorito batekiñ
dabil txoratuta;
arrekin ezkonduko
zala txinistuta,
orra nun gelditu dan
tripa puztuta.

10/ Orra, aren gustoko
ofiziyua zan:
lanikan egin gabe
ibiltzia dantzan;
oraiñ lanbide ona
dauka bere pantzan,
señoritua oraiñ
senartzako artzan.

11/ Orra komenientziyak
nai zituben dama,
Donostiya'tikan da
ustutzeru juana;
zein dan esango nuke
bañon au da lana:
gaztia da ta eztet nai
galdutzia fama.

12/ Amabi bertsorekin
orra despedida,
neskari pasa zaion
txaskua ori da;
Aita San Romani oraiñ
eskatzen ari da,
parto on batez aurra
datorrela argira.

Bertso auek, gaiaren agergerri dan izenburu orrekin, bein baiño geiagotan azaldu dira plazara paperetan. Iru argitaraldi eskuetaratu ditugu guk beintzat.

Bata, *Imp. de Vda. de B. Valverde - Irún* moldiztegian inprentatu zan, eta Gregorio Mujika zanaren bilduman arkitu genduan.

Bigarrena, moldiztegi ori erriz aldatu ondokoa da: *Rentería: Tip. Vda. Valverde*. Tolosa'n jaso genduan, Manuel Urreta zanaren eskutik. Papera puskatuta dago, eta zortzigarren eta bederatzigarren bertsoak puska bana falta.

Irugarrena, *Imp. de S. de Diego. - Eibar* moldiztegitik atera zan argitara. Altzoazpi'n jaso genduan, Olazabal-berri'ko Inazio Zabala'ren eskutik.

Bi aldaketa besterik ez dute alkarren artean iru paper auek. Lenengo biak, bederatzigarren bertsoaren bukaera onela dute: *tripa pustututa*; eta irugarrenak: *tripa pustuta*. Eta lenengoak eta irugarrenak, amabigarren bertsoaren bostgarren lerroa onela

dute: *Aita San Romani oraiñ*; eta bigarrenak:
Aita San Ramoni oraiñ.

Urterik ez da ageri; bertsolarieren izenik
ere ez. Nungo gertaera dan bai ordea: Do-
nostia'koa.

BERTSO BERRIYAK

1/ Bertso berri batzuek

.....'raiño
....., etzenduben
pentsatuko baiño;
obligatu ein nazu
orrenbesteraíño,
ori naigo dezulako
ixiltzia baiño.

2/ Kantak ipintzera

ein naiz abiya,
neskatxa gazte orrek
badauka premiya;
bera bajua izanda
dauka aundi-naia,
erri guztia ere
nazkatu du iya.

3/ Obligatutzen nazu
esan biarretan,
itzegin dezulako
toki ederretan;
etzera libratuko
postura orretan,
mutillak kritikutzen
denda-bazterretan.

4/ Garai batian nobiua
ere bazenduan,
ura seguru zala
bestiana jua;¹
baiña..... 'k ere
ori jakin zuan,
utzi egin zion da
ondo egin zuan.

5/ Zu nolakua zera
badet aditzera:
trenian sartu eta
pasiatutzera,
mutillikan datorren ²
begiratutzera,
bidiak galdutako
sorgiñan antzera.

¹ Bertso-paperak: *ura seguru seguru zala, bestia jua.*

² Bertso-paperak: *mutillik.*

6/ Orri gustatzen zaio
etxe erosua,
goizian jaiki eta
kalera pausua;
pasteletan jango luke
kaja bat osua,
pamili baterako
ai zer gurasua!

7/ Paillu billatzen die
jende guziari,
batez ere berekin
nai eztuenari;
bere auzoko batek
esan zidan neri:
ez ote dan izkutatuko
neska gaiztu ori.

8/ Bere buruarentzako
badu makiña bat pama,
baiña artu nai luke
mutillik onena;
billa pasia dauka
..... .. dana,
batena billatzia
badu naiko lana.

9/ Ondo jaztia ere
gustatutzen zaio;
lanian egiño balu
orrenbeste saio,
etxetik eleukake
ainbat desapiyo;³
zartzara mantentzia
kosta biar zaio.

10/ Orren pasadizuak
esaten naiz asi,
beti izan nai luke
etxeko nagusi;
gastu aundia dauka,
gutxi irabazi,
lanik ein gabe ⁴
ondo nai du bizi.

11/ Eztago nobiorik
emen zuretzako,
apartatzen dituzte
bakoitzak bêtzako;
biderikan onena ⁵
au da orrentzako:
konformatu zaitia
moja juateko.

³ Bertso-paperak: *obat desapiyo*.

⁴ Itzen bat falta da emen. Bi silabaren utsunea dago.

⁵ Bertso-paperak: *biderik*.

12/ Ara pasadizua
nik adierazi,
al dezun azkarrena
zuk ere ikasi;
badakit etzendula
besterik merezi,
adios,..... ..
ondo-ondo bizi.

13/ Jakiñ artian zu ere
egongo zera larri,
zeiñek eiñ ote ditun
bertso abek jarri;
.....'tik piska
bat goratxo korri,
Pazkuatan faborez
.....'ra etorri.

Amairu bertso auek, Tolosa'n jaso genituan, Isidora Mokoroa andereñoaren esku-tik, moldiztegi-izenik gabeko kanta-paper batean.

Oi degunez, giza, erri, eta toki-izen guz-tiak kendu egin ditugu, eta utsuneak puntuz idatzi.

«LAU LAGUN TABERNATIK...»

1/ Lau lagun tabernatik
giñaden atera,
dama oiek ikusita
zerbait esatera;
mingaña ibilliya
gureztat kalte da,
desterratu gaituzte
kartzela batera.

2/ Dama oiek pasa ziran
kalian seriyo,
guk neskatxarengana
beti amoriyo.
«Zirri egin digute»
batek esan diyo,
multa pagatu degu
au dala mediyo.

- 3/ Lenbizikuak zion
masallan idurtzi,
bigarrenak besotik
piska bat imurtzi,
irugarrenak berriz
ikutu ta utzi,
gure okerra zer dan
orra erakutsi.
- 4/ Iruna duro multa
neskaren zirriya,
amabosna errial
kartzela-sariya;
amak ein baninduen
seme biurriya,
ederki pagatzen det
nere txarkeriya.
- 5/ Donostia'ko neskatxak
lauetarik iru,
galtza gorriekilan
ibiltzen zaizkigu;
izketa lasaietan
ibiltzen zaizkigu,
itzak egin eta
etxera lagundu.

6/ Bi dama ari ziren
elkar konsolatzen,
niork ikusterikan
etzuten pentsatzen;
ni ere asi nintzen
zerbaiten esaten,
piska bat bear nuela
garesti ezpazen.

7/ Dontzella izatea
ez da prezisua,
leen erabilliak
berdin serbitzua;
gizon berak ziakin
orren berritsua:
– Ixilikan egon adi
neska mukizua.

8/ Amak bere alabai:
Ez izitu, neska.
Falta duenak beti
berekin du kezka.
Ezpadun estimatzen
mutilaren besta,
olakua sekulan
ezkonduren ezta.

Bertso-sail au ez degu moldiztegieta argitaratutako bertso-paperetan arkitu. Orregatik, osatu gabe eskeñi bearko diogu irakurleari.

Emale asko izan ditugu. Bakoitzak buzur zekizkianak eman ditu. Guztiak bilduz, zortzi bertso ditugu, danak sail berekoak diran duda egin baditeke ere.

Emale oiek etziran danak, irakurlea oartuko zanez, euskalki batekoak. Beren izen-deiturak, eta zeinek zer eman digun, urrengo lerroetan esango degu.

Irun'en jaio eta Plazentzi'n bizi izan zan Andres Ezenarro *Urzelai* zanaren bilduman: 1, 2, 3 eta 4'garren bertsoak. Bertso oiek *Aitzol* zanaren bilduman ere badaude, Ezenarro orrek 1932 urtean bialduta.

Aitzol'en bilduman, kuadernotxo batean eta bialtzallearen izenik gabe: 5, 6, 4 eta 7'garren bertsoak.

Aldaketak: 4/5: amak egin banindu ni; 4/6: ume biurria.

Aitzol'en bilduman, Errazu'ko Jose Fagoaga apaiz jauna zanak 1934-II-19'an bialduta: 1, 2, 4 eta 8'garren bertsoak.

Aldaketak: 1/5: eskua ibiltzia; 2/1: Dama oriek bazoazin; 2/3: nik neskatxarengana; 2/5: zirri egin diola; 2/8: oi dela merio; 4/3: amalauna errial; 4/5: amak egin banindu.

Tolosa'ko Estanislao Urruzola *Uxola*'ren kuadernoan: 1, 3 eta 4'garrena.

Aldaketak: 1/5: eskua erabiltzia; 3/1: batek egin ziola; 3/2: lepotikan eutsi; 3/3: bestiak masallian; 3/4: pixka bat igurtzi; 3/7: orra gure okerra; 3/8: nun dan erakutsi; 4/1: Zirri bat dala bide; 4/2: au da komedia; 4/3: iruna duro multa; 4/4: neska ziria; 4/5: amabosna errial; 4/6: kartzelan saria.

Orio'ko Jose Ramon Esnal'i jasoak: 2, 3 eta 4'garrena.

Aldaketak: 2/1: Bi dama zijoaztin; 2/3: eta nik neskatxarena; 2/5: zirri egin diyogula; 2/7: orra multa pagatu; 2/8: oi dala meriyo; 3/1: Lenbizi egin niyon; 3/2: besuan imurtzi; 3/3: ta gero masallean; 3/4: pittin bat igurtzi; 3/5: irugarren kolpian; 3/7: orra nere pikardiya; 3/8: zer dan erakutsi; 4/3: amalau errial; 4/5: amak egin banindu; 4/6: ume bigurriya; 4/7: geroztik egiten deu; 4/8: naiko pikardiya.

Aitzol'en bilduman 1933 urtean Gorrotxategi'tar Eulojik bialduta, lenengo bertsoaren lendabiziko lau lerroak; 3'garrena osorik eta 4'garrenaren lendabiziko lau lerroak.

Aldaketak: 1/3: neska bat ikusita; 3/1: Batek egin diola; 3/2; musutikan murtzi; 3/3: bestiak masallia; 3/4: pixka bat igurtzi; 3/7: orra gure okerra; 3/8: zer dan erakutsi.

Eta ondoren onako oar au: «Amari ikasia au ere. Nere ama (G.b.) zanari ikasiak Nabarra'ko Urdiain'en. Gorrotxategi'tar Euloji - Lazkano».

BERTSO BERRIAK
NESKA GAZTE BATZUERI JARRIAK

1/ Bertso berri batzuek
neska batzuentzat
txit komeni dirala
iduritutzen zat.

*Euskaldunak,
euskaldunak gera,
biba, biba, biba, biba
gure euskera.*

2/ Goizian jaiki eta
lenbiziko lana:
kale-kantoieta
soldaduengana.

Euskaldunak...

- 3/ Eguardietan berriz
mintegi aurrera,
soldadueri deadarka
espoloi aldera.
Euskaldunak...
- 4/ An agiri ezpadira
zuzenian kalera,
soldaduekin egonda
prisaka lanera.
Euskaldunak...
- 5/ Zazpiretan lanetik
dira ateratzen,
ez dute denbora asko
afaitan pasatzen.
Euskaldunak...
- 6/ Afaldu eta gero
aurrenengo lana:
espoloi-muturrera
soldaduengana.
Euskaldunak...

7/ Amak bentanatkan:
– Nora ua, neska?
– Soldaduak an dauzkat
aspaldian oska.
Euskaldunak...

8/ Amak eman diozka
ipurdi gorrian,
ibiltzen diralako
soldaduen ondorian.
Euskaldunak...

9/ Orlako neska politak
alferrik galtzia,
oixen da bada pena
artzeko gauzia.
Euskaldunak...

10/ Kontuan ibilli
zaitezte, gaztiak,
zeuen errukiz gaude
gu, mutil gaztiak.
Euskaldunak...

11/ Ia eskarmentatzen
zeraten, gaztiak,
ondo leitu eskero
letra onek guztiak.
Euskaldunak...

12/ Orra euskeraz jarri
guk amairu bertso,
onen ibillera oiei
txokaturik oso.
Euskaldunak...

13/ Kulpa gabia penaz
egongo da akaso,
kofradian ez danak
ez kandelarik jaso.
Euskaldunak,
euskaldunak gera,
biba, biba, biba, biba
gure euskera.

Bertso-papera, *Imp. de B. Valverde - Irún*
moldiztegia argitaratua eta Oxford'ko
Bodleyan Library'n agertua.

BERTSO BERRIAK
NESKATXA BATERI JARRIAK
1909'GARREN URTEAN

1/ Bertso berriyak jartzera nua
ixillik eziñ egonta,
mingaña neke-bildur da baño
biyotzak eziñ aguanta.
Neskatxa batek obligatu nau
sin pensamentian ontâ,
deusen kulparik iduki banu
batere etziran inporta,
presa garbitzen ari dirala
bete diyote konporta.

2/ 'ko 'n daude
ama-alaba batzuak,
deskuido ederra pasa zaio ta
orañ damu du gaixuak;
estropezua beti badauka
gaizki botzen den pausuak,
berak kaltia izanagatik
serbitu ditu auzuak,
oñazi txarrak ekartzen ditu
txorakeriko gustuak.

- 3/ Neskatxa orren izenik ez det
bertso oietan esango,
mundu ontatik asko bezela
ezta donzella juango;
zarrakiñ lanak egiñ da gero
kulpa gaztiarentzako,
animan zorrik batere ez daukat
Jaungoikoaren aurreko,
neri tresondra eman dit baño
bizi deriyela ondo.
- 4/ Erri orretan allegatu naiz
Iñaute egun batian,
neskatxa orrekiñ dantzatu nitzan
subertez arratsaldian;
esaten ziran: «Lagun zairazu
etxera illunabarrian».
Bire guziyan biyek juan giñan
satisfaziyo onian,
jakiñta negon nola ibiltzen zan
beste batekiñ lanian.
- 5/ Eguna ori ola pasata
sei bat illabete barru,
bederatziko alaba eder bat
neskatxa orrek egin du;
bere amari esaten ziyon:
«Denborak eztu lagundu,
mutilla ura nun bizitzen den
azkar billatu biar du».
Neria dala lotsa gutxikiñ
erri guziyan esan du.

- 6/ Lendabiziko partera zuan,
gero berriz medikua,
ark esan ziyon: «Aingeru onek
badu denbora naikua.
Kulpa gabeko personarentzat
zertako egiñ juzkua?
Lenagotikan besten batekiñ¹
izandu dezu tratua,
oraiñ ixillik tapatutzeko
al dezu pensamentua?»
- 7/ Nola kontari ibillia dan
lagunak esan dirate,
deskansurikan ez nuben artzen
etxi artara jua arte;
allegatuta galdetu niyen:
«Zer pensatutzen dezute?»
Ama-alabak biyek negarrez
asi zitzazkiran fuerte,
ekibokoa pasatu da ta
gero barkazio-eske.
- 8/ Jaio ta bizi amak izan du
kuidadua alabakiñ,
mutill gaixtoak arrotu ditu
leiotik eskopetakiñ;
erituak e badira iru
arropetatik gatzakiñ,
esaten ziyon ez fiatzeko
gabaz zebiltzen oiekiñ,
azkenerako trabatu zaio
familiako batekiñ.

¹ Bertso-paperak: *Lenagotic*.

- 9/ Kargamentua estazioan
kontrabanduan sartuta,
kotxe primeran bigaldu nai du
bagoi zarretik artuta;
lendabiziko paketiakiñ
or gelditu da nastuta,
orreatikan publikatu det
neskatxa orren konduta,
besteri lotsak ematen dabill
berak askorik ezta.
- 10/ Aiudante bat bada auzuan
bera dan beziñ trastia,
bi tropesi-aldi gaztia zala
igual berian pasia;
ark esan ziyon: «Ezten posible
gauza ori orla uzta,
zarrakiñ lanak egiñ baditun
zirikatu zan gaztia».
Merezi luke amar urteko
kalabozuan sartzia.
- 11/ Motibo gabe mutilla eziñ
trabatu zuten lazuan,
atso zar ori gurasotara
andik urrengo saltuan;
aita eta ama tratatu dizkit
trapu zar baten moduan:
«Zuen semia dala meriyo
nere alaba partuan».
Aingeru orren aita orduko
..... juanta zeguan.

12/ Jaungoikoaren justizia da
mundu guzian berdiña,
obe genduke Aren legian
zuzen ibilko bagiña;
ama-alaba oiek galdu bear dute
Jesukristoren dotriña,
lengo infernu zarra beteta
berria bada egiña,
lendabiziko an sartu bear du
.....'ko atso sorgiña.

13/ Orra aingeru ederra ori
aitarik gabe gelditu,
kulpa zeukenak ukatu du ta
eztadukanak kantatu;
mundu ontako azio txarrak
bestian pagatuko tu,
gaixtubak eta onak igual
gloria eziñ gozatu,
Zeruko Aita, asunto oiek
ongi apunta itzazu.

14/ Amalau bertso atera ditut
uskara eder batian,
bengantzarikan txikiena're
animarentzat kaltian;
falta guziak agertu biar
beste mundua joatian,
ara baño len al baldiñ bada
ongi konfesa gaitian,
kulpa daukana sartu dedilla
deabruaren katian.

Bertso-papera, *Imp. de Fernández y Diego - Eibar* moldiztegia argitara emana eta Gregorio Mujika zanaren bilduman agertua.

Iru utsune arkitu ditu irakurleak 2/1, 11/10 eta 12/10 lerroetan. Bi erri-izen zeuden or. Olakoetan oi degunez, kendu egin degu eta puntuz idatzi, iñoren lotsak ez berritzearren.

DAMA GAZTE BATENTZAT

1/ Bertso berri batzuek
dudarikan gabe
dama gatze batentzat
komeni dirade;
Irun'en serbitzalle
zeguan mirabe,
baña Naparrua'ko
alaba zerade.

2/ Ogei ta zortzi urte
zure edadia,
oraindak juiziyorik
etorri gabia;
esplikatzera nua
enfermedadia,
gañera orrek daukan
abillidadia.

- 3/ Pakete bat bazuen
nagusiyagandik,
gurasoen etxera
eraman du andik;
amak esaten diyo:
– Alde idan emendik,
bestela jipoien bat
emango diñat nik.
- 4/ Pakete ori zuben
Irun'en artua,
berez naparra baña
Frantzia'n partua;
orren arbolatikan
datorren frutua,
apaiz egin liteken
ez da ziertua.
- 5/ Lenbizi Donosti'ra
gero Donijuana,
barbero ta mediku
adituengana;
ikusi zutenian:
– Zer daukazu, dama?
– Operaziyo on bat
egin biar dit, jauna.

6/ Au da mediku jaunak
esandako itza:
– Erremediyo billa
zertako zabilta?
Barrengua galtzeko
etsaiak dabilta,
laister sendatuko da
zuk daukazun gaitza.

7/ Dama ori egun batez
Irun'dik galdu zen,
semia egin omen du
San Juan de Luz'en;
azia bota eta
frutua eldu zen,
ori konserbatzera
saiatu gaitezen.

Bertso auek bi tokitatik eskuratu ditugu:
Irun'en jaio ta Plazentzi'n bizi izan zan An-
dres Ezenarro *Urzelai* zanaren bildumatik;
eta Aduna'ko Torre baserritik.

Obe bearrez, bi era oietatik bat egin
degu, bakoitzetik komeni zana artuz.

Irun-Plazentzi'ko eratik, 1, 2, 5, 6, 7 eta
4'garren bertsoak artu ditugu. Orden orre-
tan zeuden. Aldaketak, or goien ezarritako

erarekin: 4/3: berez naparra da ta; 7/5: aziya ifeñi eta.

Aduna'ko eratik: 1, 5, 6, 3, 4 eta 7'garrena. Aldaketak: 4/5: zure sabeletikan; 5/1: Ikusi zubenian; 5/2: Zer daukazu, dama?; 5/3: Operaziyo on bat; 5/4: in biar dit, jauna; 5/5: Irundik Donostira; 5/6: don Juanengana; 5/7: mediku edo barbero; 5/8: aginduengana; 6/4: alperrik zabilta; 6/5: barreng'ori galtzeko; 7/1: Egun batez dama ori.

Jose Manuel Arrizabalo zanak eta biok egindako *Baso-mutillak* izeneko liburuan, bertso auek agertzen dira, bigarrena izan ezik: *Auspoa 134, 114* orri-aldean. Baiña Arrizabalo'k atzenduta zeuzkan eta erdizka eman zizkidan; eta nik osatuegin nituan, Irun-Plazentzi eta Aduna'ko era oietaz baliatuta.

BERTSO BERRIAK

1/ Dozenatxo bat bertso berriak
nai nituzke atera,
kasua zer dan ikasitzeko
artu zazute papera;
por si acaso iñork egiten
badute oitaz galdera,
esaiozute joan dedilla
.....'ko Errikoetxera.¹

2/ Modu orretan kulparik gabe
neri artzeko neurriak,
onezkero jakin bear dituzte
biyak ditugun berriak;
penikan ez nuben izango
izan balira egiyak,
ori sinistatu biar dezute:
gezurrak ziran erdiyak.

¹ Erri-izen bat.

3/ Lendabiziko gure etxera
etorri ziñadenian,
galdetu gabe au esan zigun:
pizkorra zala lanian;
andik urrengo allegatu da
erdi berdoztu danian,
zenbat orlako puska egoki
erregalatu zenian.

4/ Gau batean allegatu da
beroturikan asnaska,
aski egoki itzegin ziran:
«Atia iriki zan neska;
zakurra oiek segitu eta
eldu naizela igeska,
irristatu eta deskuiko batez
or erori nan auspezka.»

5/ Zer esanikan eztago ortan,
gera Jainkuak egiñak,
bultua franko izanagatik
asko buru ariñak;
gogorrak bertan uzten zituben,
berekiñ artu biguñak,
.....'k bapo gozatu ditu ²
biri oitako buztiñak.

² Mutillaren izen-goitia.

6/ Arrats batian atez kanpotik
egin zituan ejuak,
Donostiya'tikan adituko ziran,
etziran beintzat bajuak.
Beretzat zeñek artuko ditu
postura ortako majuak?
Makiña bat amets alferrik
egin du gizarajuak.

7/ Zenbat alditan estimatu det
farra egitiagatik,
agure zarrak bezela igual
sartzen zitzaigun atetik;
gero bueltan ontzak burlaka,
zakurrak zaunkaz atzetik,
modu ortako joanera asko
egin du gure etxetik.

8/ 'ko zakurrak segi,³
..... ori igesi,⁴
nere denboran orlako pestik
ez det askotan ikusi;
aik geldituko ziradelako
egiten zuban karraxi,
modu orretako mutil gaztiak
ez du onrarik merezi.

³ Baserri-izen bat.

⁴ Mutillaren izengoitia.

- 9/ Modu orretan kulparik gabe
ni mendratutzen asteko,
ordañikan jarritzerika
nonbait etzuben usteko;
erdi ero bat basta izan da
bazter guztiyak nasteko,
..... askoz ere obia zaude ⁵
artzeko baño uzteko.
- 10/ Oraiñ ere allegatzen dira
gure etxian majuak,
zure aldiak ixillak eta
disimulo obekuak;
gauza zerekin izan ezkerro
ondo ematen du lujua,
bañan ez petxutik zintzillik
izebaren relojuak.
- 11/ Iñola ere deskansatu
ezin da nere barrenik,
izan ere ez dit eman izandu
iñork orlako penik;
ez da izango ez kastellanik
ta aiñ gutxi euskaldunik,
orren berriyak ikasi eta
ori artuko duenik.

⁵ Mutillaren izengoitia.

12/ Zortzi errial irabazten ditu
ta zortzi txiki ardo eran,
jakiña dago jornal ortatik
zenbatsu sobratuko dan;
kantak jarritzen segitutzeko
amari ere eziñ eman,
iruritzen zait nere karrera
obiagua ote dan.

13/ Donostiya'ra jua ziñaden
arturik señaire-partia,
ezagututzen ezta erreza
zenbaten ero-golpia;
beretzat mesederik ez ta
amarentzako kaltia,
prenda utzita etorriya da
relojua eta kofria.

14/ Iruritzen zaio mutil ederra
edo egokiya dala,
neri bertsuak jarritzen asi
eziñ zitekean bestela;
amalau bertso bost zentimuan
gusto duenak artu dezala,
..... rentzat jarriyak dira ⁶
lenago ark neri bezela.

⁶ Mutillaren izengoitia.

Bertso-papera, *Imp. Baroja San Sebastian* moldiztegian argitara emana, eta bertan eskuratua.

Neska batek mutil bati jartzen dizkion bertsoak dira. Bañan mutillak berari jarri dizkio lenengo, bertsoetatik ageri danez.

Oiartzun'go Luis Aduriz zanak esan zinguez, gabeen atera ta jendea bildurtzen asi omen zan mutil ori.

Errenteri'ko Manuel Elizetxea'k, berriz, onela idatzi zigun:

«Este que citan estos versos, debe de ser uno que, en nuestra juventud, se dedicó a salir de fantasma por las carreteras, a asustar a las chicas.»

BERTSO BERRIAK
GAUR IKUSTEN DIRAN DAMA POLITARI

- 1/ Bertso batzuek kantatutzera
orain nuade abian,
esplikaturik zer kontu diran
komeni zaion neurriyan;
ikusten diran gauzak dira ta
igande-jai Donostiya'n,
juan dan ogei ta amar urtetik
nola dan diferentziyan,
atzena onuntz allatu arren
lenago estranjeriyan.
- 2/ Jai-artsaldetan egoten naiz ni
begira gauza bateri:
amabost urte ogei bitarte
duten neska gaztiari;
beidatu batez pobriak ere ¹
markesa dala dirudi,
abrigo luze belaunetaño,
atzian botoi ugari,
kiñu egiñaz bastoi sonbrero
duten kaballeruari.

¹ Bertso-paperak: *pobriak e.*

- 3/ Buruko illian usatzen dute
zinta zabalak jarrita,
sedazko fiñak kolore beltzak
geienai det ikusita;
naiz erdipoerdi janda ibilli
kontentu orla jantzita,
etxeko lanik ikutu nai ez
fintasunian utzita,
oien azpiyan oñala igual
kirtenen paltan autsita.
- 4/ Urte guzitan izaten dira
moda berriyak ikusi,
lenengo aldiyan jantzitzen dunak
berak naikua pantasi;
Frantziya'n dago Paris aundi bat
beste guztiyen nagusi,
andikan dia libruetan da
figurak egiñez aiazi,
diru gutxiko pobre gaztiak
denborakin du erosi.
- 5/ Lepotik bera kate luziak,
medalla urre doratuak,
beste batzuek ille piñekin,
deitzen diote katuak,
goantiak e luze samarrak
besuetaño sartuak;
erregaluak orla eginda
gaixuak engañatuak,
bigote zorrotz txaleko txuri
dunai enamoratuak.

6/ Esan bezela igandiakin
izaten dira kontentu,
chicas y chicos, grupos, cuadrillas
erromeietâ allatu;
en casas grandes o sociedades
dibertitzia pentsatu,
unas a otros con sus pañuelos
bên izardiyak sekatu,
«¡Qué barbaridad! ¡Vaya un calor!»
abanikua dantzatu.

7/ Astia bota eta jakiña
igandia allatzian:
badia batzuek juaten diranak
alkilatuta kotxian,
• «Arratsian goiz etorriko naiz»,
esanda beren etxian;
señorituen kontura gustoz
danak meriendatzian,
pianua du batek jo eta
beste guziak baltsian.

8/ Irabazitzen eskasa eta
gastatzen berriz iaiua,
makiñat orla izatekotan
mundu onetâ jaiua;
perfume edo usai onakin
beterik armariyua,
eltzian berriz koipien falta
ez urdai ta ez oliyua,
sentimenturik dun amarentzat
ori da alibiyua.

- 9/ Ikusten diran dama guztiyak
ez dira orrelakuak,
badira asko formalak eta
orgullorik gabekuak;
nola guztiyak ez diran igual
baserri edo kalekuak,
lengo legian tokatzen zaion
bezela jantzitakuak,
txanbra ta gonak edo mantalak,
oial da perkalezkuak.
- 10/ Tela merkia izanagatik
sentzillamente jantziya,
bost duro zillar patrikan eta
ura den aren graziya;
pultsera, kate, alaja danak,
aberatsentzat utziya,
lana eginda dirua ekarri
erositzeko jakiya,
ollo-saldakin eltzia eta
plater da burrunzaliya.
- 11/ Geienak dute bèn gurasuak
euskaldun oso garbiyak,
alabak berriz gau eta egun
erderazko iturriyak;
galai fiñakin tratatutzeko
arturik ondo neurriyak,
iji ta aja parra egiñaz
algara izugarriyak,
dantzan geiegi ibilli eta
zapaten takoi autsiyak.

12/ Garibay kale dioten ortan,
jai-bezpera eder batian,
espaloyian pasatu nitzan
neska batzuen tartian;
unas decían con garbo y gracia
ain intentziyo fuertian:
«Mañana iremos todos a Hernani,
petxuak lorez betian,
Pepe y Enrique y su cuadrilla
juango'ia automobillian.»

13/ Atentziyua jartzen diote
musika-soñu onari,
noizik bakoitzan begiratuaz
beren soñeko gonari;
lenguan farrez egondu giñan
begira dama bateri,
ispilluaren aurrian ai zan
bere sonbrakin dantzari,
aien aurreko balkoi batetik
ain ederki zan ageri.

14/ Agur danari, dama gaztiak,
fiñak eta kuriosuak,
segitu ondo osasunakin
maitaturik gurasuak;
pentsatu ondo nun eta nola
egiten diran pausuak,
ainbeste gauza aitzen ditugu
geienak lastimosuak;
denbora pasa kantatutzeko
orra Lertxundi'k bertsuak.

Onako sail au, izenburu ori duala, bi bertso-paperetan arkitu degu.

Bata, *Rentería: Tip. Vda. Valverde* moldiztegian argitaratua, Tolosa'ko Lazaro Pildain adiskidearen eskutik jaso genduan.

Bigarrena, *Imp. de S. de Diego - Eibar* moldiztegian inprentatua, Altzo-azpi'ko Inazio Zabala'ren eskutik izan genduan.

Alkarren artean aldaketarik ez dute bertso-paper auek, moldiztegi-okarren bat edo beste izan ezik.

Azken bertsoan bertsolariaren abizena ematen zaigu: Lertxundi. Izenik ez, ordea, eta orrela oso motz gelditzen gera.

Lertxundi abizena zuan Orio'ko Errikotxia bertsolariak. Semeak ere bazituan bertso batzuk jarriak.² Baiña izenik jakin gabe, ezin bertso auen jabetasuna iñori eman.

² *Auspoa*, 60.

BERTSO BERRIAK
LEZO'KO NESKATXA BATZUERI JARRIAK

1/ Bertso berri batzuek
nai nituzke jarri,
dama gazte batzuen
alabantzagarri;
oien pasadizuak
esango'itut sarri,
jakin nai dituenak
onera etorri.

2/ Dama polit oriyek
fabrika batian,
badakit non ibiltzen
diraden lanian;
iñon eziñ egonik
diranak pakian,
egaz juango dirade
egunen batian.

3/ Oso politak dirade,
bai, beren ustian,
orlakorikan ez da
iñongo partian;
ondo konpontzen dira
elkarren artian,
orla segi zatela
beti, ill artian.

4/ Goizian goiz jeikita
beti lendabizi:
ispilluen aurrian
gorputzak ikusi;
ondo jantzirikanen
postizo ta guzi,
etxeko lanak utzita
dijoaz igesi.

5/ Etxetik irteteko
estu eta larri,
kalera or dijoaz
salto eta korri;
ez da jakiten erraz
neskatx oien berri,
mundu ontan baziok
amaika farragarri.

6/ Amalau urtetikan
amasei bitarte,
neskatx oiek edade
orixen daukate;
jantzi, orrazten oso
dotore dakite,
ofiziyorikanen
gabe ez dagozte.

7/ Oñetakuak onak
gona motx-motxakin,
txanbra txuri-gorriya
mantal politakin;
gerriya estutua
beren kortsiakin,
zer espero da gaurko
dama gazti oikin?

8/ Orla dotoretuta
atera etxetik,
iñork ez du esango
pobriak diranik;
arrautz bat prejitutzen
ondo dakiyenik
bai ote dan oietan
jakiñ nai nuke nik.

- 9/ Ederrenan itxura
jartzen badakite,
bañan ala izateko
asko falta dute;
lepua luze eta
zankuak oso me,
itxusi ederrikan
eziñ izan leike.
- 10/ Lezotarrak dirade
beren jaiotzatik,
Lezo'n bizi diranak
ordu ezkeroztik;
etzan espero Lezo'n
orlako neskatxik,
etziok oraiñ nonai
fiyatu besterik.
- 11/ Lujua oso zaigu
erri (y) ontan sartu,
eziñ leike oraintxen
iñon e fiyatu;
gezurrik esaterik
iñoiz etzat gustatu,
egiyak dira danak
nai duenak sinistu.

12/ Agur beste bat arte,
pakian segitu,
itz abekgaitikan ez
beintzat aserratu;
denbora pasatzia
orla det pentsatu,
ofentsik egin badet
mesedez barkatu.

Bertso-papera, *Imp. J. Díaz.- Irún* moldiztegian argitara emana eta Aita Donosti zanaren bilduman agertua.

Bertso-papera, *Guernica.- Imp. de Goitia y Compañía* argitaratua eta Azkoiti'ko Laraskanda baseritik, Frantzisko Lete edo Patxi Estra'ren bitartez, eskuratua.

Bertso-papera, *Guernica - Imp. Angel de Goitia* argitara emana eta Altzo-azpi'ko Inazio Zabala'ren eskutik jaso.

Bertso-papera, *Rentería: Tip. Vda. Valverde* moldiztegian argitaratua eta bertako Jertrudis Arrieta zanaren eskutik jaso.

Lau argitaraldi auek ez dute alkarren artean aldaketarik, moldiztegi-utsegite bat edo beste izan ezik.

Egillearen izenik ez da esaten; ezta urterik ere.

Bertso auek erantzuna izan zuten. Urrengo orri-aldeetan arkituko du irakurleak.

BERTSO BERRIAK
MUTILL GAZTE BATZUEI JARRIYAK

1/ Kantak jartzera guaz
Lezo'ko gaztiak,
batek aña deretxo
daukagu bestiak;
disimuluan ziran
lengo albistiak,
zerbait ekarriko du
mantxatzen astiak.

2/ Mutill gaztiak jarri
dituzten kasuak,
txuliatziagatik
izketa gozuak;
gure jantziyak daude ¹
gogotan jasuak,
jakinduri gutxiko
fantasiosuak.

¹ Bertso-paperak: *jantziyaz*.

- 3/ Neskatxen edadia
señalatu dute:
amalautik asi ta
amaseira arte;
berak amasei edo
emezortzi urte,
juiziyuan baleude
ez luteke kalte.
- 4/ Alpargata zuriko
trajedun galaiak,
guri neurriyak artzen
biziro alaiak;
pozez zorutzen daude
etortzeko jaiak,
oiek dira señorito
txiki aundi-naiak.
- 5/ Esanaz gu generala
dama itsusiyak,
zubek politaguen
ondoren asiyak;
pazientziyan gaude
Jaunari graziyak,
aditubagatikan
lengo despreziyak.

6/ Nunbait apenas gauden
izketan legunak,
tratamentu jakiñik
artu ez degunak;
atzerriko mutillak
gure ezagunak,
zubek ezin sufritu
alako lagunak.

7/ Errenteri'ko oiek
ez daude seriyo,
gurekin itz egiten
dutela meriyo;
emen izanagatik
norbait kontrariyo,
zuzen dabillenari
ajolik ez diyo.

8/ Etxian zer egiña
liteke billatu,
guzirako gerala
ez asko fiyatu;
zubek nai badezute
buruba jiratu,
oraindik badaukagu
zeñek begiratu.

- 9/ Izketa txarretatik
beira aldrebestu,
gero errukitziak
baliyoko eztu;
utsegiterik gabe
zabiltzate prestu,
lenguak ez dezaten
kopetarik beztu.
- 10/ Besterenak esaten
asko dira trebe,
bañan oraingotikan
ixiltxia obe;
apustu ez dirala
ateratzen jabe,
sekretuan daudenak
deskubritu gabe.
- 11/ Gauza zelebria da
oien soziyua,
txantxetan ekartzeko
estimaziyua;
manifestatu dute
naiko leziyua,
Judasek izan zuben
edukaziyua.

12/ Orra, neskatz lagunak,
nola gauden flako:
arrautz bana prejitzen
eztakigulako;
oiekin ikastera
ez al gaitun jarko,
bestela badiñagu
zer esana franko.

13/ Uste det diyotela
norbaiti lagundu,
ero kozinerakin
izketan egondu;
mokadu onak jan ta
azalak legundu,
oien lepo onduak
zerbait ezagun du.

14/ Neskatzak nai badegu
alkarrekin kordan,
etzaizute galdutzen
ezer ere sordan;
asentatu zaitezte
zeron eskudran,
zubek al dakizute
egokiya nor dan?

- 15/ Dira fiyo egiñak
 biyotzetik mindu,
 burlaka asi gabe
 obe luke findu;
 maliziyan daudela
 norbaitek jakin du,
 etzuten tatxetara
 besterik zikindu.
- 16/ Zer dala uste dezute
 konduta galtzia?
 Amoriyo gaiztotik
 datorren trantzia?
 Tokatzen baldin bada
 disputa sortzia,
 gutxi kostako zaigu
 ordañak jartzia.

Bertso-papera, *Imprenta y Litografía de V. Iraola* moldiztegi argitaratua eta Sebero Altube zanaren eskutik jaso.

Bertso-papera, *Imp. S. de Diego.- Eibar* moldiztegi argitaratua eta iru tokitan agertua: Igantzi'ko Juan Sein'en bilduman, Gregorio Mujika'renean eta Aita Donosti'renean.

Argitaraldi auek ez dute aldaketarik.

Egillea nor dan ez da esaten. Baiña Aita Donosti'renean onela dago eskuz idatzita: *Juan José Sarasola, de Lezo, q. vive en Donostia. Tiene 57 años. (Nov. 1923).* Urteak ondo daude; baiña egillea bera dan, ez da kigu.

BERTSO BERRIYAK

1/ Bertso berri batzuek
nai nituzke jarri,
.....'n bizi dan
dama gazte bati,
nolakua esanez
jende guziari,
ondo goberna zala
bere alaba ori.

2/ Neska zarrak diyote:
«..... guria,
amasei urte t'erdi
dauka edadia;
arek erakutsi du
abillidadia,
ni emen nô oraindik
probatu gabia.»

3/ Emakume polita,
kolorez oriya,
pisurikan gabeko
anka me, urriya;¹
orrek desonratu du
.....'ko erriya,
bañan jorratu'iote
krabeliñ gorriya.

4/ Emakumia orrek
artu ditun famak,
lotsak artu lezake
batere duanak;
ongi edukatuba
aitak eta amak,
igual-igual dira
etxe ortan danak.

5/ Nungo dan publikatzen
ein biar det asi,
.....'n jaio ta
.....'n azi;
ejenplo ona orri
diyote erakutsi,
orain lasai bizi da
alaba ta guzi.

¹ Bertso-paperak: *ankam eurriya*.

6/ Ez dira ezagutzen errez
oien jeniyuak,
bajutikan asi ta
gora iyuak;
alkarrentzako zeuzken
oik opiniyuak,
mutill orrek merezi
ditu premiyuak.

7/ Beñe utzi nai ezik
mutillakin dantzan,
kalterik etzun oraiñ e
geldi eon bazan;
neronek ikusiya
.....'ko plazan,
bi mutillaren erdin
señorita joan zan.

8/ Andik etxera arte
bire ederra zan,
landaria jorratzen
giro zan baratzan;
beste gazte asko
gañetik zalantzan,
ongi zezendu dute
susa egon bazan.

9/ Orra bertso berriyak
jartzen gera asi,
..... 'n jaio ta
..... 'n naiz bizi;
esandako gauzak
orra erakutsi,
euskaldunentzako
oiek daude itxusi.

10/ gaixo ori
ibilliya da larri,
orra bertso berriyak
egin dizkat jarri;
publikatu ²
Euskalerriyari,
oik beste baterako
eskarmentagarri.

11/ Ibilli zerade zu
lanterian trebe,
etzenduben etsitzen
oi logratu gabe;
zure alabarekin
ganantziyan zare,
baño alaba degu
aitarikan gabe.

² Ezin irakurri bertso-paperak emen zer dion, puskatu-
ta dago ta.

12/ Oi aberatsa dala
nago enteratuba,
aurraren aitarikan
gabe geratuba;
ni mutill zartu ta
nago ernegatuba,
biyok ezkontzeko
egingo deu tratuba.

13/ Kontuk goguan eraman
beste baterako,
bertsorikan ez dute
geio aterako;
jende guztiya ortan
enteratzerako,³
bigatxo ederra zaude
etxe baterako.

14/ Adios, 'ko
zu nere biyotza,
lanteri oiek eitia
biar luke lotsa;
begira dagodenak
artu digute poza,
bañan ezta donzella
orren santu motza.

³ Bertso-paperak: *enteratzeko*.

15/ Emakumia ori
izanikan lista,
bere botaziyotik
nazionalista,
urrutitikan ere
zeukaten bista,
deskuidatu da eta
egin diyote txista.

16/ Enkargu artu nun
ostegun arratsaldian,
.....'ko kontuk
zer norrela dian;⁴
San Juan listu'ala
oiek diotenian,
baño pizkorragua
bada aldamenian.

17/ Oiek ibilli'tuzten
beren pantasiyak,
naspillatu dituzte
oik baztar guziyak;
aurrak aitik ez dula
oiek daude etsiyak,
bañan azi dezala
Jaunaren graziyak.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea,
Zarautz'ko baserri batetik. Bada—ezpada
ere, toki ta pertsona-izenak kendu egin di-
tugu.

⁴ Bearbada, *zer nolatan dian* bearko luke.

«NARANJAREN GISAKO...»

1/ Naranjaren gisako
kolore oiekin,
aukeran omen zaude
ogei ta bostekin;
aukera dadukanak
nekia berekin,
ai, zeñek izango du
fortuna zurekin?

2/ Xirri bat egin nion
lengo arratsian,
arrebai egiteko
laister esan zian;
bañan alaxen ere
inportik etzian,
musu ematen nion
eldu bakoitzian.

3/ Andregai bat banuen
bera ijitua,
Baloi aldetik bueltan (*sic*)
ibillitakua;
itxusi demonio
kara gaiztokua,
kopeta ere ez dik
nere gustokua.

4/ Kale-txikiko aldapan
esan omen dio:
«Mutil polita den da
segitu akio!»
«Bernarda –Maria Batistak
ala omen dio–,
dirurik ez din baño
berak din balio.»

5/ Andregaiakin leno
nuen pasiatzen,
asarrauko zanikan
ez nuen pentsatzen;
ikusi nindunian
pixka bat eraten,
geroztikan itzikan
ez dit nei egiten.

6/ Uste gabe gabian
kalian billatu,
orlako fortunarik
zeñek du topatu?
Besotik eldu eta
neri anparatu,
gerritik eldu gabe
ezin zan moldatu.

Bertso auek ere, emale askoren aotik ditugu; eta danen artean dozen erdiraiño iritxi.

Ona emen izen-deiturak eta zeñek zer eman duan:

Azkoitia'n, 1969'ko abenduan jasoak, emalearen izen-deiturarik idatzi gabe utzi bagenduan ere: 1, 2, 3 eta 4'garren bertsoak.

Azkoiti'ko Patxi Estra'k (Frantzisko Lete) eta beraren adiskide batek kantatuak: 1, 5 eta 3'garrena. Aldaketakerik ez dute.

Azkoiti'n jaio ta Zarautz'en bizi dan Patxi Larrañaga'k kantatuak: 1, 2, 3 eta 4'garrena. Aldaketarik ez dute.

Tolosa'ko Estanislao Urruzola *Uxolà*'ren kuadernoan: 1, 6 eta 3'garrena. Aldaketak: 1/5: Aukeran dagoanak; 1/7: ai, zeñek ote dauka; 4/5: Bernarda, Mari Bixentak.

Bertso auek kantatzeko doñua, Patxi Larrañaga'ri manetofonoz jaso genion bezela papereratu degu:

The image shows a musical score for a song in 2/4 time. The score is written on six staves. The first staff begins with a treble clef and a 2/4 time signature. The melody consists of a sequence of eighth notes: G4, A4, B4, C5, B4, A4, G4. The second staff continues the melody with eighth notes: F4, E4, D4, C4, B3, A3, G3. The third staff continues with eighth notes: F3, E3, D3, C3, B2, A2, G2. The fourth staff continues with eighth notes: F2, E2, D2, C2, B1, A1, G1. The fifth staff continues with eighth notes: F1, E1, D1, C1, B0, A0, G0. The sixth staff continues with eighth notes: F0, E0, D0, C0, B-1, A-1, G-1. The music is written in a simple, folk-like style with a clear rhythmic pattern.



Bertso bakoitzaren ondotik, onako luzagarri au kantatzen da:

Baiñan alaxen ere
inportik etzian:
muxu ematen nion
eldu bakoitzian.

Luzagarri ori, doñu onekin kantatu zingun Patxi Larrañaga adiskideak:



BERTSO BERRIYAK

1/ Bertsuak jarri beitut
.....'ko partian,
dibertitziagatik
gaztien tartian;
dan gauza esango det
abua betian,
zer pasa zaidan neska
oriyen artian.

2/ Publikatzera nua
gezurrikan gabe,
guazen umorian,
ez al degu obe?
..... dago oraindikan
zuen inbiri gabe,
ederraguak ere
aukeran badaude.

3/ Kantu-lanari segi
motibuarekin,
ernatuta daude
beren burubakin;
ni arreglatuko naiz
auzokuarekin,
bañan ez naiz fiyätzen
pintatuarekin.

4/ Aizpa biak zerate
..... eta
ni ez naiz ixilduko
garbi esan gabe;
pestatikan ez datoz
mutillikan gabe,
amazazpi urte ta
komurgatu gabe.

5/ Zein dan ezagutzen det
neska gazte ori,
berak daukaten gaitza
bota bestiari;
aspaldin zenbat burla
ein diozu guri,
dotriña onen partez
pintura ugari.

- 6/, daukazu,
aiskide egiña,
berakin dibertitzen
zabiltz alegiña;
buru ori bazendu
diamante fiña,
baliyua baluke
oek laurak aña.
- 7/'tik etorriyak
dira amabi urte,
geroztik endredua
pranko eman dute;
ez-izena jartzeko
laiñ arte badute,
oraiñ ixilduko dira
lotsarik badute.
- 8/ Gona motzak jantzita
pasiatutzera,
sarri juaten zerate
..... .. aldera,
libra bana auts emanda
gutxi gora-bera;
urrengo goizerarte
ez datoz etxera.

9/ Zuek zerate traste
pintatutakuak,
–goguan artu izan
nik esandakuak–
eta paraje askotan
ibillitakuak;
gure arrebak eztira
zuek bezelakuak.

10/ Oiek ari dirade
nik biartu gabe,
gurasuen artian
kulpak badirade;
gaizki esaka danai
sarri ai dirade,
etxe aldia ondo
gobernatu gabe.

11/ Mutil formala danai
ai ajola gutxi,
nolakua naguan
nai det erakutsi;
naiz egonagatikan
gorputzez itxusi,
zuen bildurrik gabe
dago orain

12/ Disgustora bazera
nigana etorri,
txarra izten badiozu
nere paper ori,
gogor egin biarra
lotsagabiari,
nai badezu bueltak
orain neri jarri.

13/ Orra kondiziyuak
neskatxa oienak,
berakin dauzkaten
fallorik geienak;
saltsera dia eta
lotsa gabienak,
ala esaten dute
erriyan geienak.

14/ Loritutzen eztana
beti ba plakua,
badirudi gosiak
ibillitakua;
ez-izena neskatx orrek
beak jarritakua:
.....'ren nobiyua
dala kua.

15/ Orra amabost bertso
oraingo berriyak,
bate gaizkirik gabe
ez artu neurriyak;
memori ona dauka
nere jatorriyak,
abek dirade.....
.....'k jarriyak.

Amabost bertso auek, *Tip. Elustondo* –
Zarauz moldiztegian eman ziran argitara
paperetan, eta paper oietako bat Orio'ko
Gregoria Ibargoyen zanaren eskutik jaso
genduan guk.

Oi degunez, iñoren miñak eta lotsak be-
rritu-gogorik ez baitegu, errien eta kris-
tauen izenak kendu egin ditugu, eta utsu-
neak puntuz idatzi.

BERTSO BERRIYAK

- 1/'go fonda bateko
iru neskatxaren fama,
orain jendiak esaten dunez,
aize gaiztuak darama;
juan daneko aspaldi ontan
trakestu dirade dana,
eztago oso leku txarrian
oitara biartzen dana.

- 2/ Bata, bestia.....
eta bestia
irurak ere txepetxak aña
juiziyo kasik ez dauke;
jota mutillak ezker ta eskubi
botatze'itue estoke,
berriz ere ola ezkondutzeko
tratuba egiñik ez dauke.

- 3/ Neskatxa oriyek ostalaritzan
beti aritzen dirade,
beren kontura segitze'iyote,
ez gustatutzen mirabe;
erdi mozkorrai doble kobratzen
oso azkarrak dirade,
beren tarteko trapukeritan
majo bizitzen dirade.
- 4/ Dama oikiñ iñork pentsatzen badu
piska bat dibertitzia,
konpritugatik gustatzen zaie
gauza ondo pagatutzia;
bestela laister eramango du
iñork uste ez dun partxia,
krabeliñ oikiñ ez da komeni
nolanai jostatutzia.
- 5/ Goizian jaiki, lendabiziko
mototza orraztutzera,
gero urrena suba eginda
kafetera berotzera;
frantzes ta aleman dana soziyo
gauza aprobetxatzera,
arratsaldian musika jota
saloi aundira baltsera.

6/ Baltsian einda afaldutzera
danak batera juntatu,
jan da eran einda denbora pasa,
pasaizuak kontatu;
ondorenian zaldi zuriyan
nai bezelaxe montatu,
txotxa mugitzen baldin bada're
badakite nola tenplatu.

7/ ori ezkontutzeko
juzgatzen dute neretzat,
belar-jenero txarra izango
danik iruditzen etzat;
nik ere badet kariño piskat
neskatxa polit batentzat,
goiz aldietan oian nagola
frankotan goatutzen zat.

8/ Esposatzeko asi gera ta
bere ama kontra atera,
nobiya billa juateko esan dit
beste paraje batera;
andre billa ez baño juaten naizela
edatera ta jatera,
ori baño atso lotsagabeoik
mundu onetan ote da?

- 9/ ori gaztena dute,
jostuna eta plantxera,
baño ori're mutil zalia
beste askoren antzera;
amak sartu zun edukatzera
konbentu txiki batera,
gaubeko amabitan txoko batetik
akordatu gabe atera.
- 10/ Falta zan eta ama zebillen
oso eskandalo fuertian,
zazpi laun billa bialdu zitun
egualdi eder batian;
uste gabe or billatu dute
Pasai aldeko partian,
bailarinakiñ dantzan egiñez
teatro koskor batian.
- 11/ Topatu zuten da ekarri zuten
len bizitzen zan etxera,
beraren aita makilla artuta
bizkarra berotutzera;
amak an diyo: «Zertara zatoz
nere alaba jotzera?
Biyok ies einda utziko zaitugu
orla ibiltzen bazera.»

12/ Gizonak diyo: «Abitu zaituz
bazaude eskapatzeko,
nik ez dadukat orlako pozik ¹
atzetik segitutzeko;
nere denboran emakumia
obeto izan da neretzako,
oixe biar nuke: zuk aldegitia
berri polit bat artzeko.»

13/ Atso ori zakarrago jarri zan
askotzaz otsua baño,
eta begiyak aundigo ditu
kasikan basua baño;
eta kopeta beltzagua da
kasikan zartaia baño,
moreriako aproposagoik
ez det ikusi egundaño.

14/ Mirabe ori gustatutzen zait
ez dakit zenbateraño,
askotzaz ere ederrago da
maiatzeko arrosa baño;
eta kolore obiak dauzka
krabeliñ gorriyak baño,
ori bakarrik naiago nuke nik
erdipurdiko bi baño.

¹ Bertso-paperak: *daukat*.

15/ Kitarra-soñuan badakite,
baita bandurrian ere,
boliñian ere ez dira egongo
beñere probatu gabe;
musika-soñun egiten dute
oitako aldian dotore,
zale danikan eziñ egon leike
oiekiñ probatu gabe.

16/ Lastimaik diferentzi piska bat
daukagu edadian,
treinta y seis eta *diecinueve*
bizi gera aidanian;
alaxe ez degu okerrik
juntatzen geradenian,
arroz con leche jango deu biyok
ezkontzen geradenian.

Urterik eta egillerik gabeko bertso
auek, Arantzatzu'ko bilduman arkitu geni-
tuan. Paperak, moldiztegi-izenik ez du.

Oi degunez, toki eta jende-izenak ken-
du ta utsuneak puntuz idatzi ditugu.

* * *

Gregorio Mujika zanaren bilduman, moldiztegi-izenik gabeko paper bat azaldu da, amabost bertsorekin. Bertso oietako sei, aurreko saillaren 1, 2, 3, 9, 10 eta 12'garren bertsoak dira, zenbait aldaketarekin ordea. Orregatik, danak osorik jarriko ditugu emen:

1/ Papar aldeko ardandeiko
iru damatxoren fama,
orain jendiak esaten dunez,
ipar aiziak darama;
juan daneko aspaldi ontan
ur-ardo asko dute emana,
mozkorrik gabe txintxo ibiltzen da
oitara juaten dana.

2/ Bata, beste,
eta bestia,
irurak ere txepetxak aña
juizio kasik ez dauke;
asarretzian mutillak igual
botatze'itue estoke,
berriz e ola esposatzeko
tratua iñik eztauke.

- 3/ Neskatxa oiek ostalaritzan
beti bizitzen dirade,
beren kontura segitzen diote,
ez gustatutzen mirabe;
erdi mozkorrai doble kobratzen
oso azkarrak dirade,
beren tarteko trajiñuetan
majo bizitzen dirade.
- 4/ ori gaztena dute,
jostuna eta plantxera,
baña ori're mutil-zalia
beste askoren antzera;
amak sartu zun edukatzera
konbentu txiki batera,
gaubeko amabitan txoko batetik
akordatu be atera.
- 5/ Falta zan eta ama zebillen
oso eskandalo fuertian,
zazpi lagun billa bialdu zitun
egoaldi eder batian;
uste gabe or billatu dute
Bidaso aldeko partian,
bailarinakin dantzan egiñez
teatro koskor batian.

6/ Billatu zuten da ekarri zuten
len bizitzen zan etxera,
beraren aita jua zitzaion
bizkarra berotutzera;
neskatxa orrek iru-lau salto
in ditu aurrera ta atzera,
eskapatu zan sartu dalarik
kuarto txiki batera.

7/ Andria ordun jua zitzaion
gizonari kargu artzera,
galdetu ziyon: «Alaba jotzen
oso erotu al zera?
Egun askotan postura orretan
ibiltzen baldin bazera,
biyok iges eginda bakarrik
bakarrik geldituko zera.»

8/ Gizonak diyo: «Abitu zaitez
bazaude eskapatzeko,
nik ez dadukat orlako lanik
atzetik segitutzeko;
lenago ere emakumia obeto
izan izan da nêtzako,
zuk alde itia asko nuke oañ e
neskame polita artzeko.»

- 9/ Andre ori tristetua zan
begiyak tiratzeraño,
ta kopeta beltzago zedukan
kasikan zartariya baiño,
eta begiak aundigo zitun
kasikan basua baiño,
erantzun ziyon: «Orla ibiltzeko
eztago gaztegoik zu baiño.»
- 10/ Asarretuta ibilli dute
pelia txorua eztana,
gizonak mototxetikan eldu,
andriak ori zun pena;
andriak ere erantxi diyo
kolpe txikiya ez dana,
jo buruan da or autsi diyo
burruntzaliyen kirtena.
- 11/ Arrezkeroztik andre-gizonak
aparte erretiratzen dira,
andriak bere alabarekin
beti juaten da oira;
gizona auzoko neska zarrakin
merkatura ta perira,
andria ordun katalejukin
egoten da leiotik begira.

12/ Lepo-bueltak apain dauzkate oiek
biña koloreko katez,
bi eskuetan iruna erraztun
zillar urre diamantez;
belarritako prantzes oriyak
gindillak *brin brin brin* juez,
lujua pranko jantziyan baño
dote-konturik ezer ez.

13/ Iru aizpetatik jarri zidaten
nai nuenakin aukera,
esposatzeko gusto banuen
oik bizi ziran etxera;
bi urte osuan tratatu deu ta
orain despeira atzera,
orain argatik obligatu naiz
bertso polit oik jartzera.

14/ Estranjeruak mutil gaztiak
dauzkate beste etxian,
aiekin iñoiz pasiatzen dute
automobiltxo batian;
oso dotore emen dabilta
Gatzaga aldera juatian,
meriendatuta denbora pasa
iturritxuan trukian.

15/ Neri utzita estranjeruaz
gustora dabiltz tratatzen,
desiuetan darama baña
ez esposorik prestatzen;
bi zarren oien ai dira berriz
pixkat bigotiak azitzen,
urrungo urtian monja dijuaz
aurten ez badira ezkontzen.

Paperaren beeko barrenean, itz auek
eskuz idatzita: *1930 Epaila, Tolosa'n eresia.*

BERTSO BERRIYAK

1/ Ara Paris'tikan aurten
notizi berriya,
neskatxa baten aitak
neri ekarriya:
alabak nola dun orain
landare txikiya,
auzoko mutill gazte
engañagarriya,
egin omen diyo tranpa
ikaragarriya.

2/ Gabian illartargitan
omen da gertatu,
dama-galaiak egin
ixillik pekatu;
eta agertu biarrian
neskatxa gertatu,
eta mutillak orduban
ein diyo ukatu,
oso senargai txarra
etzaio tokatu.

3/ Alabak orain aitari
kontestatu diyo:
ark etzubela kulpik
niñak baño geio;
mutillak nola esan ziyon
noble ta seriyó,
baldin ortatik okerrik
etortzen bazaio,
erremedituko dala
izateko fiyo.

4/ Neskatzak ere gauz ori
aditu zunian,
biyak dibertitu dira
umore onian;
gizon gazte polita
uste aldamenian,
gero zerbait okerra
gertatu danian,
lenago bezin bero
eztira aidanian.

5/ Pestatik etxera aurrena
asi zan laguntzen,
illunduta ordutara
etziran azaltzen;
guraso zarrak asiyak
bastante kejatzen,
nun edo nola ote zuten
oinbeste tardatzen,
aiek orduban ibilli
alkar kilimatzen.

- 6/ Neskaxari galdetzen
ziyoten etxian:
«Aber nun egoten ziran
ordu (b) oik artian?»
Amari esaten ziyon:
«Utzi beit pakian,
alikan-da mutill ori
seguratu artian.»
Arek berak konpondu
biyen bitartian.
- 7/ Txokuan arrapatu du
ollanda bikaña,
gero kaxuelan egin
saltxako kuziña;
zuk orrela uzteko
gure etxeko doña,
gutxinez baliyo du
lau kaskarrek gaña
bere solteran badauka
prututxo bikaña.
- 8/ Adiskire aundiyak giñan
lenago ni ta zu,
zer esaten zizkiratzun
aztu al zaizkitzu?
Akomodatzeko esan,
nai dana eiten maisu,
oain frutuba au dedalako
ukatzen al nazu?
Amar aur mantentzeko
a ze gizona zu!

9/ Zu izan ziran baziña (*sic*)
' mutilla formala,
gauz oi erremeituko zan
nola edo ala;
etxe koskor bat billatu
biyok beriala,
antxen ezkontuta jarri
kristaubak bezela,
uste det olain bateko
itxura bazala.

10/ Batzubetan aurrera ta
bestetan atzera,
mutill koskorrak bezela
preparatzen zera;
eztezu sujetatu nai
andrerik artzera,
aurki pikua bezela
zimurtzen bazera,
mutilzartuta obeto
biziko al zera?

11/ Zenbatentzat berdin dira
iso eta arri,
nungotarra ote degu
mutill gazti ori?
Dakiyenak akaso
eztu esan nai ori,
aisa pegatutzen diyo
gaiztuak onari,
langa libre dan lekuban
aurrera nun-nari.

12/ Guk ere langa gendukan
zerratu gabia,
laister billatu zuben
barrura biria;
bai gañera jorratu're
ango landaria,
altxuma bota digu
oso dotoria,
ama bertan an du baña
aitarik gabia.

13/ Nere nobiyu ori da
Berdun aldekoa,
masti-soro ederrak
jorratutakua;
gero gustatzen zaio
txabalen tratua,
uso paloma emen nago
orrek perratua,
gure txokoko tratua
bistara agertua.

14/ Ez al dakizu ze broma
pasatzen genduban
etxe buruko iru
parolen onduan?
Ordu pare bat pasa
dameta jokuan,
illunpetan ere alkar
ikusten genduan,
goxuak ziran gure
promesak orduban.

- 15/ Zoriyonian pestatik
ein zirazun jira,
illundu ezkeru azkar
besoa gerrira;
ikusten giñutenak
auzotan badira,
ederki eman diyogu
lanari segira,
sasitik sasikumiak
ateratzen dira.
- 16/ Ankapera sartu zaizkit
ondrak eta famak,
zu zealako moztu ziran
nere aurretik gonak;
gero atzetik arrastaka
autsak biltzen danak,
ze parrak eiten zituzten
begira zaudenak,
lotsatu biar batere
lotsatutzen danak.
- 17/ Ondo izaten giñan
deskuidatu arte,
bañan kulpikan aundinak
zuk dituzu parte;
orain konsentimentuba
daukazu aparte,
gauz oi ola gertatzia
biyontzako kalte,
adios tranpa txulo ta
Josepeterarte.

Bertso auek, *Imp. Macazaga* – *Rentería* moldiztegian argitaratu ziran. Oiartzun'go Alzibar'en jaso genituan guk, Olalde baserriko Jose Angel Sarasola'ren eskutik.

Neskatxa batek aurra egin du, eta mutilak ukatu egin dio. Orduan, lendabiziko bertsoan esaten denez, neskaren aita bertsolari batengana dijoa, gertatuaren berri eman ez eta bertsoak jarri-araziz.

Lenengo bertso orrek Paris aitutzen du. Aurak andik datozela esaten baita. Beste esan nairik ez du orrek, gure iritzirako beintzat. Emengo gertaera da; ez angoa.

Mutilla, 13'garren bertsoak dionez, Berdun aldekoa da. Frantzia'n ere bada Verdun izeneko erri bat, 1914'eko gerran entzute aundikoa izan zana. Baiña Aragon aldean ere bada beste bat, Iruña'tik Jaka'ra bidean, kaxko batean. Berdun alde orri, *La Canal de Berdún* esaten zaio erderaz. «Masti-soro ederrak jorratutakoa» dala esaten da mutil orrengatik. Gaur olakorik gutxi dago lurralde orretan; baiña garai batean masti ederrik asko izango zan.

Urterik ez da esaten; eta bertsolariaren izenik ere ez.

BERTSO BERRIAK

1/ Bertso berriyak jartzeko
artu nuen itza,
neskatxen gona motzak
luzazi banitza;
melenak moztiai-ta
santuk ezteritza,
elizatikan fuera
orla badabiltza.

2/ Aita Santubagandik
arropa oien planak,
orra, emakumetxuak,
oiek zuen lanak:
soñekuak luzatu,
tapatu belaunak,
eta ez moztutzeko
buruko melenak.

3/ Orra kontu politak
emen emaztiak,
gona motzak dauzkela
neskatxa gaztiak;
ezpadiyu bildurtzen
luzia jaztiak,
pena geio emango'ie
melena ez moztia.

4/ Kurpituko ordena da
ez moztu melenik,
eztute nai ez ama
eta ez alabenik;
tapatzen eztuenak
gonakiñ belaunik,
ez omen du elizan
sartutzeko lanik.

5/ Jaunak otsegiñ zuen
kopeta beztuta:
ez geiago juteko
melenak moztuta;
bestela egon biarko
elizaz aztuta,
agiñdutzen duenak
erregutz'eztu-ta.

- 6/ Melenak moztu ori
zuen debekatu,
orrekin bakarrikan
etzuen bukatu;
gero agindu zuen
belaunak tapatu,
ezpazuen egiñ nai
elizan pekatu.
- 7/ Soñeko motzarekin
mezatan egonak,
beti eztitu izan
gustoko egunak;
modistak egin bezela
jantzi biar gonak,
eliza merezi du
emakume onak.
- 8/ Gaiztua eztu izan nai
bildur da geo-ta,
argatikan da ona,
piña ta debota;
alakua ez liteke
elizatik bota,
zerutik Erregiña
begira dago-ta.

9/ Baño jabiak diyo:
«Nere elizak tia,
errespetuan obe
dala izatia».
Kostunbri oik argatik
galerazik tia,
ta arrek esan bezela
ibilli zaitia.

10/ Respetua ona da
elizan da pestan,
guztionzat e ori
kalte apenas-tan;
begira onra onari
zeñen aberas-tan,
garbi agertutzeko
jabiaren bistan.

11/ Soñokuak luzatu
telak ekarrita,
ordena ematia
bestela alperrik-ta,
laguntzen badiyogu
danok alkarri-ta,
ondo izateko asko
ori bakarrik-ta.

12/ Aita Santubak zuen
ordena bialdu,
errespetua elizan
etzediyen galdu;
onra-bire onari
obe degu eldu,
premiyan Jaungoikuak
lagunduko al du.

13/ Ezta ukatu biar
jabian eskurik,
eztago errespetuai
beiratu besterik;
badu Aita Santubak
ordena justurik,
baño eziñ egin du
guziyen gustorik.

14/ Guztiz kunpliturikan
iñor eztet senti,
galdetu diyet asko
amari ta aiti
zeñek izaten ditun
gusto guzik beti;
Jaungoikuak etzizkan
eman grano bati.

15/ Ondo kontuba artu,
alabak ta amak,
serbitutzeko ondo ¹
Elizako famak,
eta eramateko
arropaje onak;
orden ori eman du
Aita Santu jaunak.

16/ Grazi bat eskatze'iou
Aita Santubari,
ondo begiratuta
lengo estanpari,
kendu al baliyeke
sentimentu (b) ori,
erregututa Ama
Eliza santari.

Bertso-sail au, moldiztegi-izenik gabeko paper batean argitaratua, Errenteri'n arkitu genduan, Juan Zabaleta bertsolaria zana-ren paperetan. Alkiza'n ere jaso genduan, Bentzalaga baserrian, Inazio Ugartemendia'ren eskutik.

Egillearen izenik ez da esaten. Urterik ere ez. Baiña ortografia berri xamarra da. Adibidez, l eta r letrak txapelarekin ditu. Orregatik, errepublika-denborakoak-edo

¹ Bertso-paperak: *serbitzeco*.

izango dira bertso auek, leenagoko beste argitaraldiren bat izan ez bazuten beintzat.

Juan Mari Lekuona adiskideak argibide jakingarri au eman digu bertso auei buruz:



«Errepublika-garaian-edo, eliz-agiriren bat eman zen, *Elizako jazkerataz aginduak* izenburuarekin; eta elizako ateetan egoten zen agiri ori, lauki batean sartuta, Oiartzun-en beintzat».

ORAINDAÑOKO LIBURUAK
(101'garrenetik aurrera)

- 101-102. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. I. (*Aitua*).
103-104. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. II. (*Aitua*).
105. *Jose Inazio Etxeberria*: Mendi gañetik. (*Aitua*).
106. *A. Zavala*: Pastor Izuela.- Ezkioko ta Segurako itxuak. (*Aitua*).
107. *A. Zavala*: Zepai bertsolaria. (*Aitua*).
108. *Mattin*: Ahal dena. (*Aitua*).
109-110. *P. Lafitte*: Mañex Etchamendy bertsularia.
111. *Bertsolariak*: Xenpelar-saria, 1972. (*Aitua*).
112. *Basarri*: Sortu zaizkidanak. (*Aitua*).
113. *P. M. Urruzuno*: Sasiletrau baten zirria. (*Aitua*).
114. *A. Zavala*: Kaskazuri bertsolaria.
115. *A. Zavala*: Larraburu, Lexoti ta Balentin bertsolariak. (*Aitua*).
116. *A. Zavala*: Oiartzungo bost bertsolari. (*Aitua*).
117-118. *Balendin Enbeita*: Nere apurra.
119. *A. Zavala*: Oiartzungo beste lau bertsolari. (*Aitua*).
120-121-122. *A. Zavala*: Mendaro Txirristaka.
123-124-125. *A. Zavala*: Zapirain anaiak.
126. *A. Zavala*: Ustu ezin zan ganbara.
127. *M. Arozamena*: Nere aldia.
128. *A. Zavala*: Amodiozko penak bertso berrietan.
129. *A. Zavala*: Afrika'ko gerra (1859-1860).
130. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (I).
131. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (II).
132. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (III).
133. *A. Zavala*: Arrantzaleen bizitza.

134. *J.M. Arrizabalo* – *A. Zavala*: Baso-mutillak.
135. *A. Zavala*: Jaioak bizi nai.
136. *A. Zavala*: Noe'ren ontzia.
- 137-138. *Ataño*: Txantxangorri kantaria.
139. *A. Zavala*: Soldaduzkako bertsoak.
140. *A. Zavala*: Nekazariak bai miseriak.
141. *Bertsolariak*: Bertsolari-Txapelketa Nagusia (Donostia, 1980 - I - 6). (*Aitua*).
142. *A. Zavala*: Txabolategi, Elkoro eta Leunda bertsolariak.
143. *J.J. Irazusta*: Nork bere bidea (I). (*Aitua*)
144. *J.J. Irazusta*: Nork bere bidea (II). (*Aitua*).
145. *J.J. Irazusta*: Nork bere bidea (III). (*Aitua*).
146. *A. Zavala*: Berridi eta Kuxkullu bertsolariak.
147. *Ataño*: Txori. (*Aitua*)
148. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (I). (*Aitua*).
149. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (II). (*Aitua*).
150. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (III). (*Aitua*).
151. *Martin Treku*: Etxe xokotik kantari.
152. *Xalbador*: Herria gogoan. (*Aitua*).
153. *J.K. Zapirain, Ataño*: Zure Pasio Santua. Asis'ko San Frantziskoren bizitza.
154. *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak (I).
155. *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak (II).
156. *F. Artola, Bordari, R. Artola*: Aritz beraren adarrak.
157. *Elkar lanean*: Lexoti bertsolaria.
158. *Mari Treku*: Mattin, nere gizona.
159. *Txomin Garmendia*: Denbora pasa.
160. *Txomin Garmendia*: Bizitzaren arian.
161. *A. Zavala*: Kuba'ko gerra.
162. *J.M. Arrieta*: Nere ondar alea. (*Aitua*).
163. *J.C. Arrosagaray*: California-tik kantuz.
164. *A. Zavala*: Mixioetako bertsoak (I).
165. *A. Zavala*: Mixioetako bertsoak (II).
166. *M. Manterola*: Lore apal bat.
167. *J.M. Lertxundi*: Baso tarteko oiua.
168. *P. Lazkano, A. Zavala*: Tiro tartean bertsoan.
169. *Basarri*: Kezka-giroan.
170. *Txomin Garmendia*: Bordaberri'ko gozo-mikatzak.
171. *Txomin Garmendia*: Bertsolari Kurpilla.
172. *Sebastian Salaberria*: Nere soroko emaitzak.
173. *I. Olea*: Otemotxeko arnasa.
174. *A. Zavala*: Kristaubidea bertsoan (I).
175. *A. Zavala*: Kristaubidea bertsoan (II).

176. *A. Zavala*: Ameriketako bertsoak.
177. *Txomin Garmendia*: Erririk-erri.
178. *Basarri*: Bertsolaritzari buruz.
179. *Ataño*: Espetxeko negarrak.
180. *A. Zavala*: Euskal jokoak bertsoan (I).
181. *Ataño*: Zigorpean.
182. *M. Ostolaiz*: Oroipen-kutxa.
183. *A. Zavala*: Euskal jokoak bertsoan (II).
184. *A. Zavala*: Esaera zaarren bilduma berria (I).
185. *A. Zavala*: Esaera zaarren bilduma berria (II).
186. *A. Zavala*: Neska-Mutillen arteko bertsoak.



AUSPOA
LIBURUTEGIA